



ARGIA



ELKARTASUNA ESTATUAREN ZAPALKUNTZARI AURRE EGITEKO

» LARRUN: UMOREA ETA BOTERE HARREMANAK

» MARIHUANA LEGEZTATUKO DUTE KANADAN

» OPORRAK: TURISMO EREDU NAGUSITIK KANPO BIDAIAITZEKO MODUAK



ZULOAN

Bidaia bat AHT
eta lan-esplotazioan
barrena

Urko Apaolaza Avila



14 €

AHTko obren hesi laranja gainditu dugu

Lehen eskuko dokumentazio eta testigantzen bidez
egindako bidaia AHTko lan-esplotazioan barrena.

ARGIA eta Manu Robles-Arangizen elkarlanari esker argitaraturiko liburua.

ESKAERAK

azoka.argia.eus | ☎ 943 371 545 | azoka@argia.eus

AHTzuloan



@AHTzuloan



www.argia.eus/blogak/zuloan



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Kanadak marihuana legeztatu du, baina askorentzat berandutxo

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Rosa M. Martin Sabaris
- 19 Ainhoa Azurmendi
- Itziar Bardaji Goikoetxea
- 20 Karmelo Landa



Turismoa anabasa eta kaosa batzuentzat, aberastasun eta oparotasun iturri besteentzat. Egungo egoeraz eta bestelako ereduez asteko erreportajea.

- 35 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIAKO KOMUNITATEA
- 47 ARTEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: KATRIN GINEA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | William A. Douglass: "Oso lotuta nago euskaldunei, baina ez naiz euskalduna" / Miel A. Elustondo
- 22 | Turismo eredua hankaz gora: Nola bidaiatu piztia elikatu gabe? / Miren Osa eta Maddi Txintxurreta
- 30 | Justiziaren arrakalak elkartasunez beteta / Miren Osa eta Maddi Txintxurreta
- 36 | Hazkuntza komunitarioa: Bularreko anai-arrebak / Iñaki Sanz-Azkue
- 38 | "EuskarAbentura hiztun gazteen aktibazio dinamika da, udaldian beteko dena" / Miel A. Elustondo
- 44 | Usopop: "Festibal asko diruaren logikan dabilta, baina guk musika maite dugu" / Kepa Matxain

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOKI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Gonzalez de San Pedro, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Nahia Ibarzabal, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



PANORAMA

Mugimendu feministaren beste garaipen bat

Maiatzean Irlandan egin bezala, Argentinan ere mugimendu feminista garaile atera da Eliza Katoliko atzerakojaren presioen gainerik. Diputatuen ganbera abortu legearen alde agertu da, hamaika urtean sei aldiz baztertu ostean. Indarrean den lege murriztailearekin, urtean 500.000 abortu klandestinitik gora egiten dira Argentinan, sarri heriotza eraginez: 2016an 43 emakume hil ziren. Abortu libre, segurua eta doakoa legalizatzeko Senatuak berrestea besterik ez da falta. Eta hala emakumeek beren gorputzaren gainean libreki erabaki eta haurdunaldiko lehen hamalau asteetan abortatzeko aukera izango dute. Irudian: garaipena jakin zen unean poza barreiatu zen Kongresuaren aurrean bildutako milaka pertsonen artean.

Argazkia: Sub.Coop - Testua: Axier Lopez



t “Bilboko Plaza Berriko Erreka Tabernan sartu. Euskaraz bi kafe eskatu ta kamareroa siku erantzun: Hola, Dos Cafés. No tengo por qué saber euskera. Tengo estudios superiores, y tú? Klasismoa, euskarafobia”

@beharko

t “Goi mailako ikasketak baina behe mailako heziketa”

@ororostorm

t “Joan gaitezen egunero txandaka kafeak euskaraz eskatzera”

@torrezaha

t “Bufff diso en Galiza, sabémolo ben. Moita forza e que vaian a rañala quen desprece o euskera”

@maruxinha3

t “Kexa helaraziko diegu horrelako jarrerak onartezinak direla ohartarazi eta berriro gertatu ez daitezen beharrezkoak diren neurriak har ditzaten”

@behatokia



EFE

EAE eta Nafarroa, ‘Aquarius’eko migratzaileak hartzeko prest

Argia

629 migratzaile zeramatzala, Italiatik 35 miliatara eta Maltatik 27ra lehorreratu ezinik itsasoan egon zen *Aquarius* ontzia joan den astean, Italiako agintariek hango portuetan kairatzea debekatzen zuelako. Azkenean, Valentziako kaian sartzeko baimena eman zuen Pedro Sánchez Espainiako Estatuko presidentea, eta pasa den igandean porturatu ziren migratzaileak.

45 egunez, “Espainiara sartzeko ezohiko baimena” izango dute, arrazoi humanitarioengatik. Gero, Espainiako Legearen arabera tratua jasoko dute. Espainiako Barne ministro Grande Marlaskak berak irratia saio batean adierazi zuenez, *Aquarius*eko errefuxiatuak

Espainiara iristen diren gainerakoak bezala tratuko dituzte. Dagokien espedientea irekiko diete, erregulazioa edota asiloa lortzeko edo Espainiatik kanporatzeko.

Eusko Jaurlaritzak eskaintza egin die ACNUR erakundeari eta Espainiako Gobernuari, *Aquarius*eko migratzaileen %10 hartzeko. Jakinarazi du ez dutela partikularren etxerik erabiliko horretarako. Nafarroako Gobernua ere prest agertu da errefuxiatuak hartzeko.

Migrazioaren eguneroko gordina ez da aldatu, ordea. Itsasontzia Valentziara bidean izan den asteburu berean, Espainiako Itsas-Salbamenduko taldeak pateretan Europarantz zihoazen 1.290 lagun erreskatatu behar izan ditu Mediterraneoan, 43 pertsona desagertu dira itsasoan eta 4 gorpu aurkitu dituzte.

“Mediku on eta euskaldunak gara!”

ANE NEGUERUELA, MEDIKUNTZAKO IKASLEA

Aurten ere, ozen mintzatu dira ikasleak EHUKo Medikuntzako graduazio ekitaldian. Euskarazko ikasketak aldarrikatu ditu Negueruelak: “Vitorian ez dago zer ospatu, Bizkaian dagoe-nean on eta ez dagoenean hor konpon, eta Donostian ereiten jarraitu behar, uzta jasotzeko”. Bestelako “zauriak eta gabeziak” ere zerrendatu ditu ikasleak. Hala nola, medikuntzan emakumeak gehiengo izan arren, gutxiengo sentiarazten dituztela adierazi du, “¿y dónde está el médico?” gisako galderekin. Praktikak egin bitartean “ospitalean altzari moduan tratatu gaituzuenak” ere aipatu ditu. “Izan dadila azkena, txotxongilo garena”. 2018-06-13



FAUNA PUBLIKOA

**“Guk lan egingo dugu
erabaki judizialak
errespetatuko diren
gizarte bat eraikitzeko”**

**Jose Javier Esparza (UPN), Altsasuko
gazteen aldeko manifestazioaren ondoren**

Erregimenaren temperatura



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria


Kaleko mobilizazioak zerbaiten termometro badira, UPN-ren tenperaturak baxu xamar egon behar du, berri txarrak jasotzen ari baita azkenaldian: asteburuan milaka lagun elkartu dira Iruñean Altsasuko gazteen aurkako sententzia arbuiatzeko eta muntaia polizial-mediatiko-judiziala salatzen. Beste sententzia batek, 2016ko Sanferminetako talde bortxaketaren kasukoak, milaka lagun atera zituen Iruñeko kaleetara aurtengo apirilean eta haserrea metro-poli foraletik askoz harago sumatu zen.

Oso mobilizazio jendetsuak, oso sententzia polemikoek eraginak. Eta giro horren erdian, erabaki judizialak debate publikoaren dikan daudenean, ez zaigu ba plazara atera Esparza, esateko, Diputazioa galdu zutela oraindik onartu ez dutenen izenean, beraiek toga janzten dutenen alde daudela?

Esaldiak badu bere testuingurua: Esparzak parez pare jarri ditu Altsasukoen aldeko manifestazioa eta ekainaren 2an UPNren kale-animazio departamenduak antolatutako *euskarafobia pride* eguna, salatzen Uxue Barkosek mobilizazio baten eta bestearen aurrean jarrera diferenteak hartu dituela, “proportzionaltasuna” eskatu duelako Altsasukoen kasuan –adierazpen neurtuagorik, nekez–.

Kaleko mobilizazioak zerbaiten termometro badira, ordea, UPNren tertzio mediatikoak ez dira lortzen ari jende askorik mugitzea Barkosen gobernuaren aurka. Euskaren kontrako manifestaziora gasolina gutxiagorekin iritsi ziren iazko ikurrinaren kontrakora baino. Eta urtetxo bat falta da eltze forala sutan jartzeko. Ez dirudi denbora asko. Eta hauteskunde irabazleak ez dituzte epaileek erabakitzen. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



ANALISIA

Munduko Koparen irabazlea



Axier Lopez
@axierL

Estadio, taberna eta albistegietako orroak futbola ez den gainerako guztia estaltzen hasi dira, baita nazioarteko futbolarekin lotutako negozio ilun eta ustelak ere. 2015eko AEBetako fiskal nagusiaren hitzak ahanzturaren zingiran urperatu dira jada: "Futbolaren kupuletan agerikoa, sistematikoa eta sakonki errotutakoa da ustelkeria". Errusiako gizonen munduko futbol txapelketa-ri begira izango dira 3.400.000 lagun, FIFArekin datuen arabera. Eta badakigu kiroletik baino negoziotik gehiago duela futbol modernoak.

2010ean Hego Afrikan, herriarren erdia pobrezian bizi zen eta 3.900 milioi dolar erabili zituzten Munduko Kopa prestatzeko. FIFAk 3.380 milioi dolarreko sarrerak izan zituen. 2014koan Brasilek 15.000 milioi dolar xahutu zituen azpiegiturretan, kostuen %90 Lularen Gobernuak hartu zituen bere gain. Eta *FIFA Go Home* oihuen artean, 2.600 milioi irabazi zituen FIFAk. Aurtengo edizioan ere joera goranzkoa da. FIFArekin diru sarreraren aurreikuspena 6.000 milioiokoa da. Errusiako Gobernuak gastuen -12.000 milioi dolar- %70 ordainduko du funts publikotik. Zifra estratosferikoen dantza honetan ez dago soberan datu hau gogoraraztea: "Etekin asmorik gabeko" elkarte suitzarra da FIFA. Milaka milioiko negozioa kudeatzen duen talde altruista, onura orokorra duena, laguntza publiko handiak jasotzen dituen (zergetan, adibidez) eta agintean talde 'selektotako' kideak dituen. Espainiako errege-etxeak sina lezakeen deskribapena da, baina ezberdintasun bat dago, ordea: FIFAn 'Urdangarinak' dozenaka dira.

FIFagate

2015ean AEBetako Justiziak FIFAko 41 langile, goi-kargu eta Amerikako hainbat gobernutako buruzagi -tar-



Blatter FIFAko buruzagi ohi ustela eta Putin.

tean Costa Rica, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua eta Panamako presidentek- inputatu zituen, futbolaren kontura bidegabeki aberasteagatik. FIFAko zuzendaritzan 17 urte zeramatzan Joseph Blatterrek 2015ean dimititu egin behar izan zuen. Ustelkeria kasuen uholdeari erantzuteko FIFAk Espainiako popularren esku-liburuari heldu zion: "Pertsonen akatsak dira, ez erakundearena". Hala, 2016an Gianni Infantino jarri zuten zuzendari, Blatterren gertukoa. Baina bera ere ez da ustelkeria akusazioez salbu. 2017an *Le Monde* egunkariak argitaratu zuen, Turkiako futbol partida batzuen iruzurretan parte hartu zuela Infantinok.

Etekin eskubideen gainetik

Pasa den astean FIFAko Kontseiluak erabaki du giza eskubideak betetzen ez dituzten herrialdeak ez zigortzea, aldek 156 eta kontrako 35 botorekin. Agian horregatik, FIFAk ez du arazorik izan datorren edizioa Qatar diktadura wahabistan egiteko. Prestakuntza lanak hasita dituzte eta, Amnistia Internazionalaren arabera, esklabotzatik gertuko baldintzetan ari diren 2.000 langile, gehienak nepaldarrak, hil dira Kopako azpiegituren eraikuntzan. Negozioa kirolaren gainetik dagoela ikusteko ageriko kasua da Qatarrekoa. Nazioarteko txapelketa eta liga gehieneko udako etnaldian ospatu ohi dira munduko kopak. Baina, aldaketarik ezean, azaroan eta abenduan jokatu da 2022koa, tenperaturak 40 eta 50 gradutara heltzen baitira udan. Liga handien egutegiak baldintzatu behar izango dituzte.

Bai, baloia biraka hasi aurretik irabazlea adostuta zegoen. Inork baino gehiago, FIFAko lagunek ospatuko dituzte Azpilikueta, Odriozola eta enparauen golak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Armagintzaren lobby, pozarren



Juan Mari Arregi

Ez da egia dirua falta denik munduan, estatuek eta Europar Batasunak dirurik ez dutenik herritarren behar soziolaboralak asetzeko. Gobernu bakoitzaren lehentasun politikoen menpe dago dena. Stockholmeko Bakearen Ikerketarako Nazioarteko Institutuaren datuen arabera, 2017an munduko gastu militarra bilioi bat eta erdi dolarrekoa izan zen. AEBek gastatu zuten gehien, 609.758 milioi dolar; Txinak hurrena, 228.231 milioi dolar; eta Errusiak 66.335 milioi gastatu zuen iaz. Europar Batasuna osatzen duten herrialdeek 300.000 milioi dolar gastatu zituzten eta ranking horren buru dago Frantziako Estatuak, 44.329 milioi dolarrekin. Espainiako Estatuak 16.227 milioi dolar gastatu zuen arlo militarrean joan den urtean.

Bistan da armagintzaren lobbya pozarren dagoela, are gehiago europar industria militarra 13.000 milioi euroko funtsarekin indartzeko joan den astean egindako iragarpenaren ondoren. "Bakearen Europar Tresna" deitzen dutena ere martxan jarri da: 10.500 milioi 2021-2027 epealdirako. Izenak izen, tresna horrekin finantzatu nahi dira beste herrialde batzuetako eraso militarrek. Gainera, Bruselak 6.500 milioi euro gordeko ditu "Europa Konektatu" izeneko mekanismora, Batasunean barrena auto militarren eta soldaduen garraioa ziurtatzeko.

Kurioski, gastu militarra eragiten duen "Defentsarako" europar politika da herrialde bazkideen artean adostasuna sortzen duen bakarretakoa. Armagintzaren lobby militarrek oso ondo funtzionatzen du Europar Batasuneko eta gobernuetako bulegoetan. Banku handiek eta multinazionalak euren interesak inposatzen dituzte. Gainerakoan, egon dadila gastu sozial apur bat ere... ozta-ozta masen matxinada eragozteko.



@BAGAZGO

Esnaola, Haranburu eta Parot anaien alde

BAIONA. "Egun bat gehiagorik ez" leloari atxikiak, ehunka lagunek bat egin zuten Lapurdiko hiriburu-ko karriketan. Ion Parot, Unai Parot, Jakes Esnaola eta Frederic Haranburu "Txistors" preso lapurtarren baldintzapeko askatasuna eskatu zioten Macronen Gobernuari. Besteak beste, Oihana Parot eta Anaiz Funosas mintzatu ziren: "Frantziako Gobernuak ez du aintzat hartu ETA desegin izana, ez desarmatzea ere. Nola gara daiteke hartara bake prozesua?"

Irregularitasun gehiago Osakidetzako oposizioetan

Argia

Elur-bola gero eta handiagoa da Osakidetzako oposizioetako iruzurraren auzian. Zenbait medikuri azterketak aurretik filtratu izana salatu zuten sindikatuek ekaina hasieran eta geroztik irregularitasunekin lotutako albisteak ugaritzen ari dira.

Beste 4 susmopean

Euskadiko Sendagileen Sindikatuak jakinarazi duenez, Osakidetzako oposizioetako beste lau espezialitatetan filtrazio-zantzuak aurkitu ditu: Traumatologia, Kirurgia Orokorra, Kirurgia Torazikoa eta Neurokirurgiako azterketak dira susmo berriak eragin dituztenak.

Epaimahaia

Jakin da gutxienez Osakidetzako 24 goi kargu daudela oposaketan tribunalean buru. Honek irregularitasunak agerian uzten ditu, Langile Publikoaren Legeak esaten duelako goi mailako karguak dituztenek ezin dutela parte hartu epaimahai kalifikatzaileetan.

Elkargoari deia

Irregularitasunak berretsi dituzten medikuek kritikatu dute presioak jasaten ari direla. "Denok ezagutzen genuen" egoeraz mintzo dira, eta euren esanetan, "ez da batere justua zuen erakundean ustelkeria salatze pertsona bat arriskuaren mugaraino jarri behar izatea".

FUTBOLA



50.000

euroko isuna proposatu du Osasunarentzat Indarkeria, Arrazismoa, Xenofobia eta Intolerantziaren Kontrako Batzordeak, "Indar Gorri zale-talde biolentoa babestu eta fabore-tratua emateagatik".

1

Hilabete 1 zelaia ixteko ere eskatu dute, Indar Gorriko kideei sarrerak ematea egotzita.



G7A BIARRITZEN

G7aren hurrengo bilera Biarritzen izango da, 2019ko ekaina hasieran. Herritarrak kezkatuta daude, segurtasun indarren areagotzeak ekarriko dituen gastuak direla-eta. Alemania, Kanada, AEB, Frantzia, Italia, Japonia eta Erresuma Batuko buruzagiak elkartuko dira.



EUSKARAREN ALDE

Tuterako Euskararen Aldeko Plataforma sortu dute. Euskara eta euskal kultura sustatzeko osatu dute eta Erriberan euskaraz bizi nahi dutenei aukerak ematea da plataformaren xedea.



GEURE ESPORT

Herri kirolei buruzko Geure esport hilaletaria sortu dute Luis Mari Bengoa, Gerardo Bengoa eta Jon Leundak. Doan banatuko da eta Urrezko Aizkorak tarte handia izango du. Herri kiroleko proba ugari astebururo egin arren, "komunikabide gehienek tarte txikia ematen digute", kexatu da Bengoa.

Kanadak marihuana legeztatu du, baina askorentzat berandutxo



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Kanadako Senatuak ekainaren 7an bedeinkazioa emanda, hiru hilabete barru marihuanaren kontsumoa bezala salerosketa libre izanen dira han. AEBetan legezkota den estatuetan ikusi denez, kalamuaren trafikoa aritzeak ez du gehiago gaiztagin bihurtuko inor, osasun arazoentzako eskuratu ezinean zebiltzanei eguna argituko zaie eta estatuak diru asko bilduko du zerga berritan. Baina drogen kontrako gerran buru ibili direnetako batzuk izango dira orain negozio berrien onuradunak ere.



Kanadak dena prest dauka marihuana bere ohiko salerosketa sareetan sartzeko, alkohola daukan bezala, lege, saltoki, kontrol eta zergak barne. Ekain hasieran, justu Donald Trump G7ko gainerako mandatariekin muturtuta eta bereziki Kanadakoarekin haserre azaldu zuen argazki haren egunean, Otawako Senatuak oniritzia eman zion kalamuaren erabateko debekua lurperatzen duen lege berriari. Hori bai, diputatu eta senatari kontserbadoreek gogor egin diote aurre azken unera arte.

Justin Trudeau lehen ministroak bete ahal izan du 2015eko hauteskunde kanpainan egindako promesa. Osasun arazoak arintzeko kontsumitzea 2001etik zegoen despenalizatua Kanadan, baina arau berriarekin bera bihurtu da G7 taldeko herrialdeen artean estreinakoa marihuana atseginerako kontsumorako liberalizatzen.

Legeztatzearen sustatzaileek argudiatu dutenez, egoera berriak ekarriko du kriminalitatea gutxitzea, lanpostu berrien sorrera eta estatuak zergatan diru gehiago biltzea. Hemendik aurrera kanadar bakoitzak bere kontsumorako lau *Cannabis sativa* landare hazi ahal izango ditu, norbere kontsumorako 30 gramo arte edukitzea bezala; gehiagoko kopuruak merkataritza legeen arabera kudeatuko beharko dira.

Kanadako prentsan aurki daitekeen eztabaidetako bat da ea zenbateraino lortuko duten agintariak *mari* trafikoa merkatu beltza murriztea, edo

bestela esanda, ea zenbat zerga biltzea lortuko duten. Tom Barnesek *The Independent* egunkarian azaldu duenez, "Kanadan atseginerako marihuana merkatuak urtean 5.700 milioi dolar kanadar -3.700 milioi euro- mugitzen ditu eta asko dira oraindik uste dutenak horren zati handi batek gero ere legez kanpo jarraituko duela".

GTV Capital funtsak, Kanadako kalamu konpainietan berezitua denak, kalkulatu du legezko *irribelarra* zergen aurretik ere gramoko 8,33 dolarretan -5,4 eurotan- ateratzen dela, ilegalak balio dituen batez besteko 4,88 euroak baino garestiago, testa, zorroztatzea eta segurtasun arauak direla eta. Gauza da legez salduari gehituko zaiola gramoko dolar bat zergatan. "Prezioen arteko tartea hori baldin bada, kontsumitzaile askok merkatu ez legalean jarraituko dute".

Ez da harritzekoa Kanadako Zaldizko Poliziak -Mounted Police izena dauka, *txapeloker* kanadarren behor bakarrak beren autoenak izan arren- oso aurre-ratuta edukitzea planak kalamuaren industriari jarraituko duen merkatu beltza ikertu eta pertsegitzen jarraitzeko.

Gainerakoan, erakunde guztiak prest omen daude marihuanaren garai berrietarako. Ontarion, biztanle gehien dauzkan probintzian, gobernuak berehala zabalduko ditu 40 komertzio *belarraren* salerosketarako, 2020an 150era iristeko asmoz. Quebec 20 dendarekin hasiko da. Askok uste dute urriegi suertatu-

ko direla dagoen kontsumoa asetzeko. Konparaziorako, Colorado estatuan (AEB) 2012an legeztatu ondoren 1.000 denda zabaltu dira. Coloradon prezioak jaitسي dira 2012ko 10,2 euroetatik gaurko 6 euroetara eta bertako agintariak diotenez kontsumitzen den marihuanaren %70 legezkota da.

AEBetan, prentsa ekonomikoak berrikitan plazaratu duenez, kalamuak laster edari freskagarriek baino negozio handiagoa mugituko du. *Business Insider*ren Cowen inbertsio bankuko arduradunek kalkulatu dute 2030erako *belarraren* industriak 64.000 milioi euroko salmentak edukiko dituela; gaur egun 42.000 milioi euro mugitzen omen ditu AEBetan, beti ere trafiko legalean.

Belar gaiztoa uste baino hobea zen

"Kanadak belarra legeztatuko du, baina amnistiatuko ote ditu delituengatik kondenatuak?", idatzi du Leyland Ceccok *The Guardian*en Torontotik. "Aktibistek diote amnistiarik gabe talde baztertutako askok jarraituko dutela iraungitako legeen kalteak nozitzen".

Justin Trudeau marihuana legeztatzearen promesarekin 2015ean hauteskundeak irabaziz geroztik, hautagaiaren hitza lege bihurtu arteko hiru urteetan 15.000 jende baino gehiago atxilotu edo salatu dituzte horri lotutako delitu eta faltengatik. Denetara, Kanadan 500.000 herritar inguruk omen dauzkate aurrekari penalak marihuana trafikoagatik kondenaren batekin lotuta.



'National Post' egunkarirako Ernest Doroszukek egindako argazkian, ezkerrekoa da Julian Fantino Kanadako Polizia Federaleko buru ohia eta eskuinekoa Kanadako Polizia Zaldizkoaren atzerri harremanetarako burua. Biak ari dira marihuana terapeutikoan liderra izan nahi duen Aleafia konpainiaren –'leaf' hostoa da ingelesez eta kalamuaren orria iradokitzen du– buruzagitzan, lehendakaria bata, zuzendaria bestea, urte luzez 'maria' eduki edo saltzen zutenak pertsegitzen aritu osten.

Udaberrian *Cannabis Amnesty* kanpainan sinadura bilketari ekin diote. Beren webgunean ekimenarekin bat egiten duten jende ezagunen iritziak irakur daitezke: "Amnistiarik gabe, legeztatzea monopolizatze itogarria da" dio DeeJay NDNk; Alderdi Liberaleko Nathaniel Erskine-Smithek berriz "Kalamuaren kriminalizatzea luze iraun duen injustizia da; amnistia beharrezkoa da injustizia konpontzeko".

Are gordinago idatzi du CBC katean produktore izandako Rosie Rowbothamek: "20 urtez egon naiz espetxean kalamuagatik, eta orain poliziak aterako dio etekin ekonomikoa horri. Trafikatzailleok pertsegitu gintuzten agintari horiek berak ari dira orain inbertitzen marihuanan, eta bitartean ez dago amnistiarik lehengo kondenatuentzako".

Rowbothamek 18 urte zituen Pierre Trudeau lehen ministroak, oraingoa-

ren aitak, *porruak* erretzea zigorgabetuko zuela agindu zuenean. Agintariak ez zuen hitza bete. Aldiz, gazte hura sartu zen trafikoan, aitortzen duenez tonaka ekartzen zituen Ekialde Hurbila, Jamaika, Mexiko eta Kolonbiatik. Lautan epaitu zuten eta denetara 69 urteko espetxealdira kondenatu, horietatik 20 bete zituelarik, lehen biak segurtasun goreneko ziegetan, nahiz eta sekula ez nahastu droga gogorragoekin.

"Inoiz ez dut nire burua aurkeztu *marijuanaren* aktibistatzat. Nik dirua ateratzen nion eta legeztatzea txarra izango zen nire negozioentzako". Orain, ordea, ezin du jasan bera bezalakoak eta kontsumitzaile txikiak pertsegitzen zituzten zakurrak berak ikustea kalamu legalaren negozioaren erdian.

Rowbothamek izen-abizenez aipatzen ditu horietako batzuk, hedabideetan ere

azaldu direnak. Marihuana terapeutikoan famatua den Aleafia konpainia-
rentzako ari da lanean, esaterako, Julian Fantino Torontoko polizian kalamuaren pertsegitzaile erruki gabea, oraindik 2015ean legeztatzearen kontra mintzo zena. Berdin gobernu kontserbadoreko kide ezagun gehiago. Diote orain ohartu direla oker zeudela gai honetan.

"Orain horiek –dio Rowbothamek– libre dute dirua egitea *marijuanaren* legeztatzearen kontura, eta bitartean laster legala izango den zerbait egiteagatik aurrekari penalak dituzten asko baztertuta geratuko dira, edo, kasu askotan, baita espetxean ere. Ni gaizkilea baldin banaiz, zein hitz erabiliko zenukete izendatzeko Fantino eta beste zakur-ohi eta politikariak, orain aberastu nahian ari direnak lerroaren beste alde-
ra pasata?". ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




«Oso lotuta nago euskaldunei, baina ez naiz euskalduna»

William A. Douglass

Amerikarraren erroak Nafarroan

Euskal Herrian barrena ibili da oraindik orain William A. Douglass antropologoa. Inork uste ez duela etorri ohi da, eta han eta hemen ibili ondoren hegaldatzen da berriz. Hemen denean, konpromiso ofizialak bete eta, hutsik gabe, beti da ateak zabaltzen zizkioten herri bietan, Etxalarren eta Aulestin. Bertan ditu amerikarrak euskal erroak.

Testua: Miel A. Elustondo

Argazkiak: Zaldi Ero

Etxalarren ibilia zara duela gutxi, bertakoa duzu lehen kontaktua Euskal Herrian, iragan mendeko 60ko hamarkadaren hasieran.

Euskal Herrira etorri baino lehen ere, Caro Baroja irakurtzen hasia nintzen, Chicagon, Antropologia ikasketak egiten ari nintzela. Bizpahiru liburu nituen irakurriak. Betikoak, *Los pueblos de España*, *Los Vascos* eta besteren bat. Ez askoz gehiagorik, baina horiexek, seguru. Julian Pitt-Rivers antropologoa tesi-zuzendari izatekoa nuen, baina artean Chicagora heldu gabe zen. Bitartean, esan dudanez, ni Caro Baroja irakurtzen, nire landa-lana Euskal Herrian egiteko asmoa gogoan hartua.

Zer dela-eta Euskal Herria?

Egia esan, oraintxe ez dakit. *Los pueblos de España* irakurri eta barruan jo ninduela badakit. Baina izan zitekeen Galiziara jotzea ere, ez uste. Julian Pitt-Rivers eta Caro Baroja adiskide ziren, Pitt-Riversek berak Andaluziako herri baten gaineko ikerketa aitzindari bat egina zuen, aritua bezain aditua zen, baina Caroren liburu hartan euskaldunak gertatu zitzaizkidan deigarrien, eta *Los Vascos* irakurri nion. Eta, ondoren, *Los pueblos del Norte*. Hortaz, Julioren [Caro Baroja] leihotik sartu nintzen Euskal Herrira, eta sartuz gero, etxean gora eta behera nahitara ibili naizela esan beharko nuke.

William Anthony Douglass

Reno, Nevada, 1939

Antropologoa da oroz gain, Renoko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroaren sortzaile 1967an, eta gidari 33 urtez, erretretan sartu zen arte. Poliedrikoa da Douglass: ikertzaile zaildua, idazlea, arrantzale porrokatua, kasino ugazaba saiatua, Espainiako Estatuaren eta ezker abertzalearen artean bitartekari Henri Dunant zentroaren eskariz, ekologista prestua... Hamaika liburu ditu argitaratuak, eta ikertzaile den aldetik, diren eta ez diren saririk gorenak jaso ditu.



1959an Madrilen ikasten ari zinela ez zenuen Euskal Herriaren berririk.

Ezta batere. Renon, esate baterako, Bigarren Hezkuntzako ikasketak egin ari nintzela, Nevadako ikastetxe katoliko pribatu bakarrean, euskaldun zirenak ezagutu nituen, bizpahiru, baina italiartzat neuzkan. Haien deituri bestelako tankerarik ezin eman nik orduan... Ari naiz, baina zerbaiten aditza izango nuen, beharbada, ordurako lehen euskal amerikar jaialdia egina baitzen Renon. Jakina, ni ez nintzen bertan izan, Madrilen ari bainintzen ikasten. Bestalde, Robert Laxalten *Sweet Promised Land* ere argitaratua zen ordurako, eta baliteke horren aditza ere izatea nik, baina seguru da ez nuela irakurria. Ez dakit. Beharbada dena asmatzen ari naiz, 50 urte baino gehiago igaro direnean horixe egiteko joera makurra baitugu denok, historia asmatzeko tirria. Beharbada, geroztik bizi izan dudanaren arabera ari naiz ordukoa berrinterpretatzen. Batek daki.

1963an heldu zinen estreinakoz Euskal Herrira, antropologoari dagokion landa-lanean. Nolako herrialdea zitzaizun?

Caro Baroja irakurria nuenez, ez nuen ustekaberik jaso. Caro Barojaren liburuek ilustrazioak ere bazituzten, hantxe ageri ziren Bortzirietako baserriak eta beste, eta errealitatea ez zen oso differentea. Beste aldetik, nahiko lan baren, hogeitetsu nituen, emaztea, eta urtebeteko haurra. Alegia, Euskal Herriari buruzko irudi sendorik ezin izan, ez nekien zer ikerlan egin nahi nuen ere, herri txiki bat nahi nuen, bertako eguneroko bizimoduan murgil egin. Gainerakoan, ez nuen ikergairik. Galduta nenbילה esatea ez da gehiegi, kasu honetan.

Zein duzu lehen gomuta?

Etxalarreko ostatura egin nuen sarrera, bertako nagusi Salbadorarekin egindako hitzak. Berak jarri ninduen harremanetan Sarobetarrekin. Hauek alaba zuten Parisen, lanean, eta berea zuen Agerrea etxea, eraberritua ordurako, turistaren bati errentan emateko asmotan. Horretan aitzindaria izan zen emakume hura, 1963an Etxalarren inork ez baitzion turismoari usainik hartzen. Orain 40 landa-etxe dira. Kontua da Agerrean ostatu gintuztela. Herritarrek begirunez hartu ninduten, begirune handiz, baina, jakina, Etxalar kontrabando he-



ria zen, eta ezinezkoa zen herritarrek guri etxeko ate-leiho guztiak parez pare irekitzea. Horretan ginela, familia baten etxean bizi behar genuela erabaki nuen, nire ikerketa al bait ondoen egite aldera. Herrian bazen agure bat, oso euskaltzalea, Papillo Danboriena, Adela eta Anjel Saroberen osaba. Papillok euskarazko lehen ikasgaiak eman zizkidan. Ez genuen gramatkarik ez antzekorik, bera- ren jakituria eta nire koadernoak besterik. Oharrak hartu baizik ez nuen egiten, aditzen konjugazioari zegozkionak eta beste. Arian-arian, Papillo eta biok adiskide eta lagun egin ginen, eta iloba ere ezagutu nion, Jesus Danboriena. Denborarekin, harremanak estutu genituen Danboriena eta sarobetarrekin. Hauekin, esaterako, batera ginen karrikan arratsaldero, kasik semetzat hartu zuten gure haur urtebetekoa, Johnny; euskaraz solastatzen zitzaizkion. Horrelaxe trabatu ginen. Eta, hurrena, familia ba-

ten barruan bizitzea erabaki nuenean, Jesussek beren Buxungobordako ateak zabaldu zizkidan, nik baserrian bizi nahi bainuen.

Antropologia sozialaren arabera jokatu nahi zenuen zuk.

Bai, bada. Ikergai nuen komunitatearen baitan urtu behar nuen neure burua. Agerrea herrian bertan zegoen, eta dago, baserri mundua bertatik bertara nuen, baina gure eguneroko errealitate hartatik aparte, hala ere. Herriko artxibategiak arakatu nituen, baina galdetegi bat osatu eta etxex etxe galdezka hasi nintzenean baserrian bizitzea hobetsi nuen, familia baten baitan, egiazko egoera biziz, eta euskara ere praktikatzuz, ahal nuen neurrian. Etxalarrera heldu eta hilabete batzuetara, Buxungobordan hartu gintuzten, eta pozik. Pozik ni, pozik haurra, ez hain pozik emazte Patrizia, hari aspergarria bai-



Ez naiz euskalduna

“Esaten dute mundu guztia izan litekeela euskalduna, nahikoa dela nahi izatea. Ez nago ados. Ni ez naiz euskalduna, eta bizi guztian jardun dut euskaldunen gainean lanean. Oso-oso lotuta nago euskaldunei, etxean bezala nago hemen, baina ez naiz *etxekoa*. Alferrik ari dira. Nahi izatea ez da nahikoa”

Galdera bat eta bera

“Galdera bat eta bera egiten didate beti hemen, alegia, zer iritzi dudan hemengo egoera politikoari buruz. Zail izaten da horri erantzutea, ni ez bainaiz hemengoa, ez naiz bertako herritarra, eta nire iritziak ez du balio. AEBetako hurrengo lehendakariaren gainean euskaldunei galdetzea bezala. Burugabekeria da. Aldiz, galdera horixe egin behar niri beti!”

Euskaldunon erabakia

“Ez dakit nora doan herri hau, ehun urte barru euskal kulturarik izango den, edo, batek daki, Euskadi independente bat izango den, Nazio Batuen Erakundean egoitza nagusian ordezkaritza eta guzti izango duena. Ez da nire afera, ez daukat erantzunik. Erabakia, beti, euskaldunena izango da, ez beste inorena”

tzitzaion baserriko bizimodua, goizetik arrats mendian egon behar hura. Nik, azken finean, nire lana nuen, Buxungobordatik herrira jaisten nintzen, artxibo lanera, eta etxez etxe eta baserriz baserri ere ibili ohi nintzen, datuak biltzen. Zaila izan zen Patriziarentzat, haurra Etxalarren hazi beharra neke izan zitzaion. Errazago zukeen Johnny txikia Chicagon apartamentu batean haztea, hangoa baitzen nire emaztea, ezen ez Buxungobordan, mendian galduta... Urtea egin genuen Etxalarren, eta ondoko bizpahiru urteetan ere Euskal Herrira itzuli nintzen, Etxalarrera eta Aulestira, ikerketa biribiltzera.

Zer izango ote zen Euskal Herrira Etxalarretik ez baina Erriberako Tafallatik sartu izan bazina, adibidez?

Ezin esan. Baliteke ikerketa mamitsua ere egin izatea, baina bestelakoa izango zen. Espekulazio hutsa da. Pitt-Riversek

berak Euskal Herrira etortzeko baime-nik ez, eta Albacetera (Espainia) joateko agindu izan balit, auskalo zer izango zen hura. Nire lana egingo nukeen, eta kito. Ikasle garaian ez nuen Euskal Herriarekiko atxikimendurik, maia ikasketak egin nitzan nahi zuten Chicagoko irakasleek. Ez ziren sobera tematu, baina tematu izan balira, Chiapasen (Mexiko) egin nezakeen tesia.

Zenbateraino markatu zintuen Etxalarrek?

Ikaragarri baino gehiago. Renon jaio-tzeak bezainbeste. Renon sortu nintzen mundura, baina nire baitako antropologoa Etxalarren eta Aulestin sortu zen eta, horri dagokionez, erabat hemengoa naiz. Eginak ditut ikerketak Italian, Australian, han eta hemen, beste zenbait ikerketa-lerro ere jorratu ditut, bai, baina munduan ez dago Etxalarrek eta Aulestik bezainbat markatu nauten he-

rririk. Ez dago. Eta ez ziren bi urte baino gehiago izan.

Zer diozu orduko garaiaz?

Etxalarren landa-lanean hasi nintze-nean ez nekien, ez nintzen jabetzeko gai, baina lana aitzinatu arau jabetu nintzen, banekien ziztuan itzaltzen ari zen mundu bat ikertzen ari nintzela. Bistan zegoen. Une historiko biziki interesgarria zen. Hura gehiago zen Espainia Euskal Herria baino. Euskaldunek ez zuten beren buruen gaineko ardurarik, bestek erabakitzen zuten hemengoan etorkizuna, ez zegoen autonomiarik, ez euskara baturik, ez euskal kulturaren alde egin diren ahalegin galanten parekorik. Hein batean, zigorpean zegoen guztia, baina, bestalde, herrietako agintariak bertako kulturaren aldeko erakusten zituzten beren buruak, nahiz eta Espainiaren barruan nahi zuten Euskal Herria. ETA hasita zegoen, baina ez ziren asko, ez zen

Espainiako Estatuaren kontrako mehatxua ere. Bestalde, inork ez zekien noraino helduko zen etorkizunean.

Etxalarretik Aulestira jo zenuen ikerketan.

Zeharo diferentia izan zen. Bertako parroko On Emiliok [Kortabitarte] kasik gu hartzera behartu zituen Goitiandia etxeok. On Emiliok hartu zuen erabakia, ez Goitiandikoek. Egia da bertako nagusi Frantzisko AEBetako mendebaldean arantzain egona zela, bi seme zituztela Boisen (Idaho), eta giro horrek, nahitaez, erraztu egin zuela gauza. Arestian esan dizut Etxalar kontrabando herria zela, isil-misilka bizi zirela. Aulestin, aldiz, parrokoak berak jo zuen Goitiandiko alaba, atea eraitsi zuen, esateko moduan, eta baimen horrekin eta misteriorik gabe sartu ginen herrian. Are gehiago, On Emiliok herria niri laguntzera bulkatu zuen eta, hain seguru, bera ere niri abertzaletasunaren bidea erakusten tematu zen. Etxalarren ez zen horrelakorik. Etxalarren abertzaletasuna auzoan zegoen. Alabaina, Bortzirietako herri gorria izateko aipu eta sona zeuzkan, Espainiako gerra baino lehen egindako hauteskundeetan Errepublikaren alde bozkatu zuen herri bakarria izan zelako.

Orduko Euskal Herri hura gogoan, nola ikusten duzu gaur egungoa?

Ez daukat erabateko erantzunik. Zatika jardungo dut... Politikoki, zer edo zer baino gehiago lortu dute euskaldunek. Piztu egin dira. Hizkuntzaren aldeko lana parekorik gabea da munduan, haserre, sesio eta liskar guztiak gorabehera. Euskararen estandarizazioa, irakaskuntzan egin den lana, hedabideetan... ikaragarria da. Etxalarren nengoen garaian ezin aurreikus zitekeen oraingo eguneko egoerarik. Hurrik eman ere. Kultur ekimenaren jabe dira euskaldunak, ekonomiaren ekimena ere beren



Azken hitza: Guillermo

"Hemen Guillermo zen Douglass. Joaten zen baserri batera, eta beti galdeka Guillermo. 'Honek zerengatik du hainbertze galdetu beharra?'. Guillermok galdetu egiten zuen beti, baina aunitzek ez genuen jakiten zer erantzun. 'Hemen izan da amerikano hori... Galdegin du gure etxean seme-alabak zenbat diren, ea herentzia nori eman zaion, eta hau eta hori eta bertzea'. Eta korri bertze baserrira, berriz ere galdeka. Horrek ematen zuen erreparo pixka bat, baina Etxalarko jendeak aunitz maite zuen Guillermo" (Teresa Sarobe, Etxalar)

.....

esku dute, eta are, baita ekologiaren ekimena ere. Berehala pentsatuko nukeen! Beren herrialdearen buru dira euskaldunak gaur egun, beren paisaiaren jabe bezainbat. Nork sinetsi hori Etxalarren bizi nintzen garaian. Orduan zeharo txikituta zeuden hemengo bazterrak, airea zikin, ibaiak hondoa jota... Egoera hura ez zitzaion, bakarrik, frankismoari zor, aurretik zetorren. Hondamen hura ez zuten falangistek sortu, oinordetzan jaso zuten. Oraingo Euskal Herria ikusi,

eta eredugarria begitantzen zait.

Etxalarreko eta Aulestiko egoaldien ondoren, Euskal Ikasketen Programa abiarazteko agindua eman zizuten Reno-Nevadako Unibertsitatean. Zertan ziren euskal ikasketak orduan, zertan dira gaur egun?

Euskal ikasketak garai hartan? Garai hartan ez zegoen euskal ikasketarik. Behin eta berriz eta askotan esan dudanez,

jendeak ezer ere ez zekien euskaldunari buruz. "Zer da? Frantsesa? Espainola? Zer da euskara? Espainolaren hizkeltzia? Europako herri misteriozkoa omen da euskalduna". Misterioa, kasu honekin, ezjakintasunaren sinonimo da. Desinformazioa zen nagusi. Harrezkero, [Euskal Ikasketen] Zentro aski serio bat eratu dugu eta hainbat argitalpen argitaratu ditugu, ingelesez, Euskal Herriaren gainean. Ikerlanak ere hamaika egin ditugu... Gaur egun ingelesez ari diren artean gutxi galdetuko dizute zer den euskalduna. Oraindik baten batzuk izango dira bazterretan, baina euskaldunak jada ez dira ezezagunak AEBetan.

Parte handia duzu horretan.

Egoerak behartu nau. Unibertsitatean jardun dut lanean, ez euskal klubetan, baina seguru esaten dizut euskal klubetako buruek Renoko [Euskal Ikasketen] Programari esker dakitela zein den beren jatorria, zer den Euskal Herria, zer den euskaldun izatea. Alde horretatik, euskal amerikar kultura bat sortzen lagundu dugu, ez zuzen, baina bai zeharka. Reno izan ez balitz, jakin nahiko nuke zertan izango zatekeen hemendik AEBetara, eta diasporara, oro har, joandako euskaldunaren oraina. Nik ez nuen etorkizunari buruzko bisiorik. Inork izatekotan, Jon Bilbaok zuen ikuspegi hori. Hark euskal kultura sustatu nahi zuen. Nik, ikertu. Ekipoa osatu genuen. ■

Indarkeria birtualak



June Fernández

KAZETARIA
@marikazetari

Ez naiz psikologian aditua, baina badakit bidegabekeriak eta biolentzia normalizatzea norbanakoaren babes mekanismo bat dela. Ezkertiarak eta konprometituak izan gaitezke, hala ere, indarkeriaren bat normalizatzeko “beharra” izango dugu. Gaza, Nikaragua, ez ahaztu Siria. Altsasuko gazteak, Valtonic, *La Manada*, Helena Maleno, *Proactiva Open Arms*, Mame Mbaye, Huelvan marrubiak biltzen dituzten langileak. María del Sol Cruz Jarquín argazkilaria hil dute Mexikon hauteskunde kanpainaren berri ematen ari zela. Marielle Franco gogoan. Gure bihotzak ezin du horrenbeste amorru eta samin sostengatu, hildako eta preso guztiengatik negar egin, asalatu eta ardura hartu.

Brigitte Vasallo idazlearen esaldi bat daukat burmuinean tatuatua: “Denok gara ezjakinak, baina ezaxola erabaki bat da”. Zaila da baina, geografikoki edo biografikoki urrunago sumatzen ditugun errealtateekiko axolagabekeria ez erortzea. Indarkeriak hierarkizatzea izango da beste babes mekanismo bat: “Ez da hainbesterako” esaten diogu gure buruari, baita bortizkeria horren biktimak garenean ere.

2011. urtean irain eta mehatxu pilo jaso nuen interneten bidez lehendabizikoz; martxoan SOS Arrazakeriaren bozeramaile nintzen eta abenduan nire blogean eguneroko matxismoari buruz idatzi nuen. 2012. urtean *Pikara*-ko kolaboratzailea den Alicia Murilloren kontrako jazarpen kanpaina antolatu zuten ForoCoches webgunean, kristauen Hamar Aginduen parodia bat egin ondoren. Lehenengo egoera horiek asalatu ninduten, baina urteetan koraza gogortu zitzaidan. 2016an Brigitte Vasallok *Pikara*-n Koloniako bortxaketen erabilera xenofobia salatu zuenean, irain eta mehatxu uholdeak ez ninduen asalatu. Pen-

Nortzuk dira gu kikiltzeko bidaltzen dizkiguten argazkietan agertzen diren hildako emakumeak? Txio horiek jasotzen ditugunean –babestuta izanda ere– sentitzen dugun izua, haserrea eta ezintasuna nola metatzen da gure barruan eta nola mugatzen du gure adierazpen askatasuna?

tsatu nuen Brigitten korazak “Moro batek bortxa zaitzala!” txioen efektua arinduko zuela. Momentu horretan ni Erdialdeko Amerikan bizi nintzen. “Europako feministok ez dakigu zer

den benetako mehatxua, benetako arriskua”, esaten nion nire buruari. Indarkeriak hierarkizatu nituen eta jasangarriak iruditzen zitzaizkidanak normalizatu.

Eskerrak Andrea Momoitio *Pikara*-ko nire lankideak sare sozialetako jazarpena ez normalizatzea erabaki eta galdera inportanteak plazaratu zituela: nortzuk dira feministak iraintzen dituzten gizon horiek? Ordenagailua amatatzen dutenean, zer tratatu ematen diete euren inguruko emakumei? Nor dira gu kikiltzeko bidaltzen dizkiguten argazkietan agertzen diren hildako emakumeak? Txio horiek jasotzen ditugunean –babestuta izanda ere– sentitzen dugun izua, haserrea eta ezintasuna nola metatzen da gure barruan eta nola mugatzen du gure adierazpen askatasuna?

Irantzu Varela da seguru asko egun sareetan indarkeria bortitzena bizi duen euskal feminista. Bere bideoak Youtubera igotzen ditugunean eta iruzkinak desaktibatzea ahazten zaigunean, beren kontrako gorrotoaren lekuko izaten gara. Irantzuk Shakiraren *Loca, ciega, sordomuda*-ren parodia egin du “*Putas, feas, malfolladas*”, jasotzen ditugun irainak erabiliz. *Proetarra* eta *bollera* dira beste bi hitz klabeak. Bideoa txio-katu eta 140 iruzkin jaso ditu, gehienak iraingarriak. Bortizkeria hori umorez eta sendotasunez eramaten saiatu da Irantzu, gorrotoa are gehiago piztuz, baina gertu gaudenoi onartu digu kalte psikologikoa eragiten duela goizeko Twitterren sartu eta ehunka eraso topatzeak. Indarkeria mota anitzak ulertzen lagundu digu Irantzuk bere hitzaldi, tailer eta bideoetan, indarkeria sinbolikoa barne. Bera bizitzen ari dena ez da birtuala. Patriarkatuaren kontra borrokatzen dugunon isilarazte saiakerak ez dira birtualak. Gure ardura ez da birtuala. ■

Ilusioak, utopiak

Utopikoa nintzelako, selektibitatearen aurka nengoen 1982. urtean azterketa hura egitea egokitu zitzaidanean. Orduan ere Unibertsitateko joateko ezinbesteko baldintza zela uste dut, baina ez dut ondo gogoratzen zertarako. Izan ere, garai hartan *numerus clausus* zer zen ere ez nekien –edo ez nuen jakin–, eta kazetaritza ikastera ehunka sartu ginen lehenengo mailan, bostehun edo. Horietatik hamabost “euskal taldea” deitzen genuen *separata* batean: ikasgai batzuetan euskararen babespean; gainontzekoetan gaztelaniaz, ikaslez gainezka egindako ikasgela erraldoi batean.

Urte batzuk beranduago, ordurako unibertsitatean irakasle, *numerus clausus* sistemaren aurka hitz egin nuen. Edozeinek amestutako ikasketak egiten hasteko aukera izan behar zuela iruditzen zitzaidan. Berdintasunaren utopian sinesten nuen, eskubide berberak zituztela aberatsek eta pobreek, emakumeek ala gizonek, burugogorrek zein azkar ustekoek.

Ez dakit zeren kontra nagoen orain. *Numerus clausus* inoiz baino itxiagoak eta txikiagoak dira, eta betiko Selektibitateari USE izena ipini diote: Unibertsitateari Sartzeko Ebaluazioa. Funtsean, gobernu eta administrazio bakoitzak



Rosa M. Martin Sabaris

EHU-KO IRAKASLEA

Berdintasunaren utopian sinesten nuen, eskubide berberak zituztela aberatsek eta pobreek, emakumeek ala gizonek, burugogorrek zein azkar ustekoek. Ez dakit zeren kontra nagoen orain

hamaika aldaketa iragarri eta gero, dena bere horretan uzteko.

Aurten hamaika mila ikasle inguruk egin du USE Euskal Herriko Unibertsitatean, eta beste hiru milak Nafarroako Unibertsitate Publikoan. UPV/EHU Euskara eta Euskal Literatura azterketan Bernardo Atxagak idatzitako testua

jarri dute: “Nora joaten dira ilusio zaharrak?”. Eta horren harira, aukera bi: lagun bati proiektuak, ilusioak eta ametsak kontatzeko gutuna idatzi, ala iritzi-artikulua, *Gaztaroa*, *ilusioz betetako garaia*, izenburupean.

Zeintzuk dira 2000. urtean jaio ziren gazte horien ilusioak eta proiektuak? Z belaunaldia, milurtekoen ostekoak edo post-millenialak izenekoak ezauzgarriak aztertu omen dituzte adituek: teknologian izugarri trebeak, sare sozialetan heziak, etengabe konektatuak, beharrak berehala ase nahi dituztenak, berrikuntzarekin ohituta, eta normatibitate guztien gainetik bizi direnak.

Nigandik hain urrun diruditen gazte horiek eskuz eta boligrafoz idatzi behar izan dute gutun hori selektibitateko azterketan. Emotikonorik gabe. Eta idatzi dutena, 1982. urte hartan idatzi nuen gutunaren oso antzerakoa izan da: ikasketak amaitu, lana topatu, amodioa aurkitu, bidaiatu, gurasoen aldamenetik alde egin, etxe propioan bizi... Betiko proiektuak.

Eta betidaniko barne-hutsak: ez dira, ez, hain trebeak. Zenbaitetan ez daude ez hezita, ezta konektatuta ere. Are gutxiago aseta. Eta eroso daude eremu ezagun, zahar eta normatiboan. Ni bezalaxe.

Ilusioz beteta, bai. Baina, agian, ez-lekuan. Utopia berriaren esperan. ■

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

MARCOS
okindegia

Benetako antzinako ogia

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Norberaren kirol lorpenetan familia agertzea



Ainhoa Azurmendi
KIROL AHOLKULARIA ETA
EHU-KO IRAKASLEA
@AinhoaAtxur

Orain bizpahiru urte Kilian Jorneten biografia irakurtzen ari nintzela, memento batean bere gorputza muga eta muturre-raino eraman zuen proba batean, amore ematear zegoela, bere barne-pentsamenduak azaltzen zituen: “Amaitu behar dut, nire familiagatik” –helmugan zain zeuden–. Nire lehen hausnarke-ta: “Baina familiak zer eskatu dizu ba? Norena da behar hori? Zer da zehazki demostratu behar dena?”. Zer pentsarazi eman zidaten hitz haiek. Norbere kirol lorpenetan familia nahasteko behar-rekin zer ikusia duena. Meloia irekitzera noa.

Lehenik eta behin, ez dut ukatuko gure bizitzan erdiesten ditugun arrakastetan gure inguruko se-nideek eragina izaten dutela, nola edo hala, haien laguntza eta babesa adieraziz. Alabaina, zein neu-rritan egotzi behar dira aipatu lorpenak familia-ri? Are gehiago, zergatik sentitzen dugu bizipen hori publikoki adierazteko beharra? Eta zergatik dago azaleratze hori kirol arloan beste edozein arlotan baino normalizatuago eta onartuago?

Azkenaldian hainbat kirolariri egindako harre-ra, omenaldi edo aitortza ekitaldietan, asko fami-liaz inguraturik ikusi ditugu. Kirolari profesiona-len kasua beste edozein lanposturekin alderatzen badugu, ez litzaiguke oso normala irudituko erretiro mementoan familia osoa ospakizunera joatea. Ala bai? Eta gure familiaren harrotasuna

berbera izango al litzateke? Edo ez? Agian soilik kirolarien kasuan egiten du familiak benetako esfortzua, esker on publikoa merezi duena?

Eta familia azaltzeko modua kirolariak aukera-tzen duenean? Esaterako, txapelketa bat irabazi, haurrak besoetan hartu eta milaka pertsonaren begirada eta oihuen artean jartzea. Honegatik isuna jaso dute hainbat kirolarik. Edo lasterketa bateko azken metroak seme edo alaba besoetan hartuta egiteko behar edo usadioa? Zein da irudi horren esanahia? Haurra garaikurra da? Hau-rrengan norbere harrotasuna proiektatzen ari da? Familiarekin poztasun mementoa elkarba-natu nahia? Aita edo ama konprometitua dela publikoki adieraztea? Kirolari eta aita edo ama izateak dakartzan zailtasunak esfortzuz uztartuta lorpenak ospatzeko modua da? Horiek guztiak batera? Bat bera ere ez?

Egungo gizartean haurren irudia, norbere intimitatea eta pribatutasuna gorde nahiak, sare sozialetan norbere bizitzaren etengabeko erakusketa publikoarekin egiten du topo aurrez aurre. Beraz, zerk eramaten gaitu kirolean beste arloetan azaltzen ez ditugun jokabideak azaltze-ra? Zergatik irizpide ezberdina aplikatu? Ereda eta heroi kontzeptuak nahasten ari gara? Zein da norbere kirol lorpenetan familia agertzeko edo erakusteko arrazoia? ■

Errepresioaren dimentsio neurtezinak



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Notre-Dame-des-Landesko ZADen, jendarmeen eta ekintzaileen arteko istiluetan, gazte batek eskua galdu zuen. Anputatua, guztiz, poliziak legalki erabiltzen duen granada batek lehertua. Burura etorri zitzaidan zeinen zaila izan daiteken erantzukizuna bere tokian kokatu eta mantentzea: zer egiten nuen nik istilu haietan, jakin behar nuen non sartzen nintzen, ez nuen arriskua ondo neurtu.

Iruñeko istiluetan iaz atxilotutako Oreretako gazteek gauza bera pentsa dezakete. Are zama-tsuagoa izango zaie, agian, maite dituztenengan eragindako sufrimendua. Bisitan zetorkiona kotxe istripu batean galdu duen presoak nola

berreraiki dezake bere bizitza? Zeinen zaila errua nork duen ez ahaztea.

Azkenaldian beste errepresio forma psikologi-ko latz bat areagotu da: ausazkotasuna, justizia erruleta errusiarra bihurtu baita. Altsasu da kasurik larriena, baina inondik ere ez bakarra. Hor ditugu lege antiterrorista, moza legea eta bestelako batzuk, antolakuntza politikoa desakti-batzeko espresuki diseinatuak. Eta lege horiekin nahi dutena egiten dute. Absolutiotik 65 urteko kartzela zigorrera edozein gauza. Eta bi urte ja-kin barik. Zentzugabeko prozesuak eta zigorrak batzuentzat eta bala bat pistolan guztientzat. ■

Ekaineko hamaika egun edo politikaren zingoa

tsaskirria nabarmendu da politika-
ren eremuan ekaineko lehen hamaika
egunetan, ohikoa baino aldakorrago
jo duten haize boladen eraginez, baina
ur sakonetan murgildurik, zaila eta
nekosoa da politikagintzaren ur abisa-
letan gertatzen ari diren mugimenduak
ezagutzea eta neurtzea. Nekosoa bezain
beharrezkoa.

Ekainaren hasierarekin batera ger-
tatu zen lehen ustekabea: garaile atera
zen zentsura mozioa, eta ondorioz,
Mariano Rajoy eta PP Espainiako Go-
bernunik egotziak izan ziren, azkenean.
Inork ez zion baina, astebete lehenago
aukerarik ikusten mozioari. Zergatik
atera zen garaile? Zer mugitu zen ho-
rretarako politikaren zingo ilunetan?

Ekainaren 2an, berriz, Katalunian
Govern berria eratu zen, aurretik Quim
Torra president-ak kontseilari espe-
tzeratuen eta atzerriratuen ordezkioak
izendatuta. Zerk eragin zuen aldaketa
eta zer norabide, zer aukera berri izan
dezake *Govern* berriak orain?

Hirugarren ustekabea: zentsura mo-
zio garailearen ondoren, Pedro Sanche-
zek aurkeztu zituen Gobernuaren
partaideak. Zer ordezkatu nahi dute?
Norantz abiatuko da PSOEren gobernu
esklusibo hori? Zer zulo estali nahi du,
zer helburu lortu?

Lehen kontuari begira, ez du Sanchezek
irabazi, Rajoyk eta PPK galdu dute. Esku-
daluz galdu dute Gobernuan jarraitzeko
sinesgarritasuna. Deskalabrua izan da,
Espainiako Estatuaren botere ezkutuen
konfiantza ere galdu arte. Hain nabarmen
ezen botere horiek hasiak baitziren azke-
naldian konfiantzazko alternatiba berria
Gobernurako hezten, Ciudadanos alegia.
Baina ez dira garaiz heldu. Botere faktiko
horiek PPren naufragiotik emergentzia
batean atera behar izan dute, ordezeko
enbarkazio propioa oraindik ontzian
eta berde zeukatela. Ezin Ciudadanosen
eskuetan utzi beraien interes sakratuak.
Nago ez ote zaion antzeko zerbaite ger-



Karmelo Landa

HISTORIALARIA

@karmelolanda

Espainian ez dago aldaketa
politiko sakonetarako masa
kritikorik, eta hori badaki
Sanchezek, Podemosek hori
bera onartu nahi ez duen
neurri berean. Kataluniara
begira elkarrizketa keinuak
egiten ditu Sanchezek, eta
haren ministro batek dio
orain 78ko Konstituzioan
aldaketak egin behar
direla. Keinu hutsalak dira,
hurrengo hauteskundeetara
begira posizio ona lortzeko
lasterketan

tatu gurean EAJri, hamar eguneko epe
laburrean PPren gobernuari konfiantza
berrestetik (aurrekontuak) Rajoyren aur-
kako botoa ematera (mozioa) arrapala-
dan aldatu denean.

Arestian esandakotik ondoriozta
daiteke Espainian eskuina eta botere
faktikoak ordezkaritza politiko propio-
rik gabe, umezurtz, gelditu direla PPren
deskalabrua eta Ciudadanosen albo-
ratzea gertatu direnean. Hala dirudi,
baina horrela da benetan?

Sanchezen gobernu berriaren osa-
keta aztertzeak erantzuten du, neurri
batean bederen, galdera. Sanchez ez
da abiatu, ikus daitekeenez, mozioa-
ren alde agertu ziren alderdien nahiak
asetzeko asmoz. Zergatik? Espainiako
Estatuaren benetako agintarien nahiak
asetu beharrean sentitzen delako. Hori
da, hain zuzen, 1978ko trantsizio poli-
tikoa hasi zenetik, PSOEek asumitu duen
eginkizun historikoa.

Hauxe da, ondorioz, Sanchezen go-
bernu berri horren ataza: 78ko ereduari
eutsi; banku handiak, enpresa elek-
trikoak eta lobbyen interesak bermatu;
ate birakarien jokoaz goi finantzen eta
politika goi karguen arteko identitatea
bermatu; erregea eta koroa egonkor-
tasun/aldaezintasunaren gako bezala
zaindu, eta gauza guztien gainetik, gaur
egun, Espainiaren lurralde-batasun
sakratua kosta ahala kosta ziurtatu.
Gobernu berriko ministroen curricu-
lum eta trebakuntza kasu gehienetan
horretara bideratzen da nabarmen.

Espainian ez dago aldaketa politiko
sakonetarako masa kritikorik, eta hori
badaki Pedro Sanchezek, Podemosek
hori bera onartu nahi ez duen neurri
berean. Kataluniara begira elkarrizke-
ta keinuak egiten ditu Sanchezek, eta
haren ministro batek dio orain 78ko
Konstituzioan aldaketak egin behar
direla. Keinu hutsalak dira, hurrengo
hauteskundeetara begira posizio ona
lortzeko lasterketan. Hauxe baita PSOE-
ren beraren kezka nagusia orain.

Aukera izan nuen ekainaren 9an Eus-
ko Ikaskuntzak eta Eusko Legebiltza-
rrak antolatu duten Herriarren Foroan
parte hartzeko, Bilbon; Euskal Herriko
autogobernua gauzatzeko baldintzak
aztergai izan genituen goiz oso batez.
Hurrengo egunean, berriz, ekainaren
10ean, Gure Esku Dagok deitutako giza
kate erraldoi arrakastatsuan. Prozesu
konstituziogilea gurean ari da abiatzen,
ur sakonetan. ■



BIZKAIA

irratia

Bizkaitik
bizkaira
bizkaieraz

2018

Fm: 102,6

www.bizkaiairratia.eus

94 446 68 00

TURISMO EREDUA HANKAZ GORA

NOLA BIDAIATU PIZTIA ELIKATU GABE?

Turismoa anabasa eta kaosa batzuentzat, aberastasun eta oparotasun iturri besteentzat. Egungo ereduak, baina, tarte txikia uzten du imajinarioarentzat: kontsumoa, masifikazioa eta gentrifikazioa eguneroko hiztegian sartu ditugun hitzak dira. Ba al da egoera honi buelta emateko aukerarik? Ba al daude oporrak kanpoan emateko beste modu batzuk? Egungo egoeraz eta bestelako eredu posibleez jardun gara hurrengo lerroetan.

Miren Osa Galdona
Maddi Txintxurreta Agirregabiria



Turismo ereduak hirira ekarri ditu orain arte fabriketan eman diren borroak. Hondartzari balio produktiboa erantsi nahi diote batzuek eta hiri eta herriei izaera erreproduktiboa itzuli besteek: bizitzaren eta kapitalaren arteko talka postalaren gainalde eta ifrentzuan.

“Gauza bat da turismoa eta beste bat turistifikazioa”, azaldu du hiri-ereduaren eta tokiko garapeneko teknikari Andoni Egiak: “Turismoa sustatzeko estrategia territoriala da turistifikazioa. Kapitalismoaren garapen historikoak globalizazioa ekarri du eta horren garapen ekonomikoa ez da hainbeste fabriketatik eratorritako produkzio materialean oinarritzen, ekonomia finantzarioan baizik”. Finean, urbanismoaren jolas hipotekarioa, zorren sale-rosketa eta tamainako industriak behar duen esku-lanaren prekarizazioa ere turismoaren parte dira.

“Turismoa egungo eredu ekonomikoaren materializazioa da, izebergaren punta. Euskal Herrian, Bilbok eta Donostiak zerbitzuetan, higiezinaren sektorean, finantzarioan eta espekulatiboan oinarritzen den garapen ekonomikoa- ren hautua egin dute. Produkzioa ez zen kapitalismoaren baitan hain errentagarria, beraz, kapitala zirkuito espekulati- bora pasatu da”, esplikatu du Egiak.

Espekulazio, lursail eta alkandora lo- redunen amalgaman, hiru aktore be- reizten dira turismoaren baitan: sal- tzaileak edo onuradunak, langileak edo kaltetuak eta bezeroak. “Brasilen eta Bolivian Repsol eta Endesa badira lurra- ren eta jendearen esplotaziotik aberas- ten direnak, hemen hotelak eta higie- zinen industriak dira onuradunak. Eta, batez ere, bankuak eta funts putreak”.

Bestalde, onuradun horiek guztiek ez lukete Euskal Herrian horrenbes- te inbertituko errentagarria ez balitz, eta Egiaren esanetan, errentagarrita- sun hori esku-lan merkeak ematen dio Donostia bezalako hiri bati: “Turismo eredu hau ez litzake existituko kelly-ak gabe, komunak garbitzen dituztenak gabe. Erabiltzen den lan-eskua merke- na da; hau da, feminizatua eta etorkina. Eredu ekonomiko estraktibista da: ez da ezer ekoizten, balio komuna –hondartza eta hiriaren edertasuna, adibidez – ka- pitalizatzeko dispositiboak sortu dira. Horrek lan-esku prekarizatu bat behar du aberatsenei zerbitzua emateko. Bi- garren esplotatuak jendarte guztia gara,





hiri-ereduak gure bizi kalitatea baldintzatzen baitu”.

Egungo turismo ereduen aurka egonagatik ere, Andoni Egiak badaki “denok garelako turistak”, eta sarri turistifikazioaren aurkako borroka “klase ertain zuri eta unibertsitariotik” abiatzen dela. Lan-eskuaren “artikulazioa” behar dela dio, baina horrek ere ez duela turistifikazioarekin bukatuko, baldin eta kapitalismoarekin amaitzen ez bada. Bere ustez, turismo ereduen aurka bi alternatiba existitzen dira; iraultzailea eta erreformista: “Turistifikazioaren, AHTaren eta bestelakoen beharrik ez duen eredu sozioekonomiko berri bat sor genezake, edo onartu genezake kapitalismoan bizi garelako eta espazioaren ekonomia politikatik pentsatu nola birbanatu dezakegun turismoak sortzen duen aberastasuna. Baina ez dezagun pentsatu Donostiak turistikoa izateari utziko dionik”.

Hala ere, masen turismoaren egungo panoramak badu kontrapuntua. Sarri konprometituagoa, kooperatiboagoa eta gertukoagoa, baina ez horregatik aukera okerragoa. Hondartzetako aulkia eta itzalkinak garajeen utzi eta gehiago lokaztea eskatzen dutenak.

Turismoaren periferia

Instituzioek eta, oro har, turismo eredu estandarren diskurtsoa zabaltzen dihardutenek ez lukete berehala sinetsiko pinu artean eta hirigunetik urrun ere badela aisialdian gozatzeko aukerarik. Pikunieta baserria Bergarako mendigain batean dago, Urretxu eta Azkoitia arteko bidetik desbideratuta, baso idorraren erdian. Bidea makurra da, errebuelta askokoa eta zenbait gunetan arriskutsu samarra, euriarekin eta lokatzarekin errepidea labaina egoten baita.

Joxe Ramon Arrietak eta Josebe Blancok zabaldu dizkigute etxeko ateak. Eguerdia da, lapikoa borborka dago, usain paregabea zabalduz sukalde osoan. “Hemen ez da sekula lanik falta. Beti bada zereginik”, esan dute. Turismoren inguruko lan bat dela eta

Munduko txoko gehienetan dago baserri ekologikoetan oporak pasatzeko aukera. Lanaren truke lotarako lekua eta mantenua ematen dute bertan. Argazkietan, Ohio (AEB) eta Maui-ko (Hawaii) etxaldeak.

ARGAZKIAK: WWOOF PRODUKZIO EKOLOGIKOKO SAREA.



LIZARRA KANPINA

LIZARRA (NAFARROA)

☎ 948 55 17 33

www.campinglizarra.com



**Ogitarteko eta pintxo
bero zein hotzetan
espezializatua**

Enbeltran kalea, 6
20003 Donostia
☎ 943 427 405



iriarte aterpetxea

IRATIKO OIHANA

☎ 948 890 070 · www.alberguedelpirineo.com



Arriola Txiki

NEKAZALTURISMOA

Arriola auzoa · 20829 Itziar
arriola_txiki@hotmail.com
 ☎ 943 192 000 / 606 522 147

Azpea

Jatetxea-Restaurante

ARDO EKOLOGIKOAK

Lumbier (Nafarroa)
 ☎ 948 880 433
www.bodegasazpea.com



telefonoz deitu genienean eurak elkar-
 rrizketatzeko ideia ez zutela oso ondo
 ulertu onartu digute lehen momentuan:
 ez baitira ez landetxe baten jabe, ezta
 kanpotarrei zuzendutako nekazal ere-
 muko bisita gidatuak antolatzen dituz-
 ten enpresa bateko arduradunak ere;
 euren egunerokotasuna da turismoare-
 kin duten harremana ulertzeko gakoa.

Blanco eta Arrieta WWOOF (World
 Wide Opportunities on Organic Farms)
 produkzio sare ekologikoko kideak dira.
 Nazioartean ezarrita dagoen bolunta-
 rio sarea da, eta bertan baserri ekolo-
 gikoak daude, edozein izanik egiten du-
 ten jardura: abeltzaintza, frutagintza,
 baratzea... Pikunietan ardiekin egiten
 dute lan, etxeko gaztak salduz ateratzen
 dutela jorrala. Etxean bost senide dira,
 baina garaia arabera *wwoffer* bat edo
 bi izaten dituzte mahai beraren buel-
 tan. Hala deitzen diete baserri mundua
 ezagutzeko eta ikasteko etxean apopilo
 izaten dituzten bisitariak. “Mantenua,
 otorduak eta lo lekua eskaintzen ditu
 baserriak WWOOF sarean. Trukean, as-
 tean 30 orduko lanaldia egin behar dute
 bolondresak, araudian ezarrita dagoen
 arabera. Etxe bakoitzak, ordea,
 bere modura ezartzen du zein izango
 den eguneroko jardura”, adierazi du
 Blancok. Gehien bat “beste jende mota
 bat” ezagutzeko modua dela dio Arrie-
 tak: “Jendea ezagutu, laguntza hartu
 eta gure bizimodua erakutsi nahi izaten
 dugu”. Gutxienez hiru aste egonal-
 dia egin behar dute *wwofferrek* base-
 rrietan, eguneroko martxa behar bezala
 hartzeko.

Solasaldian ari garela, bikote gazte
 bat sartu da sukaldera. Elena Galan eta
 Guilhem Capdeboscq dira, hiru astez
 Pikunieta baserriko senide izango di-

renak. Ikastera etorri direla diote, ar-
 diekin aritzea zer den ez dakitela eta
 abeltzaintzaren mundua ezagutzeko go-
 goz zirelako aukeratu dutela Bergarako
 mendigaina. Katalana da Galan; frantse-
 sa Capdeboscq. Turismoaren inguruan
 hitz egiteko bazkaltzera joango ginela
 jakitean, euren buruei galdegin zieten
 Pikunietan egiten zuten jarduna hori
 ote zen, beste leku bat ezagutzeko modu
 “ezberdina” baita. Capdeboscq-ek ezetz
 uste du, turismoa aisialdiarekin lotzen
 duela eta euren a “aisialdi hutsa baino
 gehiago” dela argudiatuta. Zalantza be-
 giratu dio Galanek eta bazkalaurreko
 lehen hordagoa jaurti du: “Beharbada
 turismoa horrelako zerbait izan behar-
 ko litzake; eskala txikian eta oso modu
 integratzailean egiten dena”.

Ados dago Arrieta Galanekin, eta fun-
 tsean turistak guztiok garela dio, bai-
 ta *domingeroak* ere. “Baserri inguru-
 ko turismoa ez dago masifikatuta, bai
 ordea hirietakoa”. Hiriak, herriak eta
 pertsonak “atrezkoak” direla gaineratu
 du Blancok, eta eskema horretan ka-
 sik “produktu” bilakatzen dela sistemak
 hartzen duen guztia. Ez du bere burua
 zurrumbilo horren barruan ikusten, se-
 me-alaben heziketan eragiten duen era-
 bakia izan baitzen produkzio ekologiko
 sarean sartzea eta “oso aberasgarria”
 den bizimodutzat jotzen baitu WWOOF:
 “Nik ez dut lotzen *woffinga* turismoa-
 rekin. Niretzako turismoak badu kutsu
 desatsegin bat, eta kosta egiten zait hori
 gure etxearekin lotzea. Hona etortzen
 direnek ikasi nahi dute eta euren bi-
 zitzaren ikasketa prozesuaren zatitxo
 bat da egonaldia. Gainera, hemen egon
 diren askorekin gaur egun harremana
 dugu, eta elkar zaintzen dugu. Hori tu-
 rismoa baino gehiago da”.



ITSAS MENDI Karabanak eta autokarabanak



► Europako marka garrantzitsuenak:
 KNAUS, HYMER, BENIMAR, PILOTE.

Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua

itsasmendi@itsasmendi.com / www.itsasmendi.com
 Errep. Nazionala 1 - 20140 Andoain (GIPUZKOA)
 Tel. 943 59 32 90



Bergarako Pikunieta baserria WWOOF produkzio ekologikoko sarearen barruan dago. Ardiekin egiten dute lan.

ARGAZKIA: WWOOF.

» Elena Galan
Bartzelonakoa da eta ez da kanpotar sentitzen Pikunieta baserrian, ez behintzat turistatzat lotzen duen ideiarekin: “Ezagutzen ez dudan bizimodua gertutik bizitzea da niretzat hemen egotea”. Bi aste daramatza artzain lanetan

Galan ez da kanpotar sentitzen Pikunieta baserrian, ez behintzat turistatzat lotzen duen ideiarekin. “Bartzelonakoa naiz eta niretzat turistak zerbait kaltegarria dira. Une bat iritsi zen zeinean gehiegi eragiten zuten nire egunerokotasunean. Lanera joateko bost minutu behar izatetik, hoguei minutu behar izatera igaro nintzen kalean jendea saihestu behar izaten nuelako”. Gaur egun Bizkaian bizi da, eta produkzio ekologikoan jasotako esperientzia ikasketa prozesua dela dio. “Ezagutzen ez dudan bizimodua gertutik bizitzea da niretzat hemen egotea”. Bi aste daramatza artzain lanetan eta inoiz imajinatuko ez lukeen arren, telebistan ikusi izan dituen eszenak lehen pertsonan bizitzen ari da: animaliak bazkatzea, kasu. Gainera, euskara ikasten ari da, eta Blancok nabarmendu duenez, ohikoa izaten da bisitariek egonaldia hizkuntza praktikatzeko erabiltzea. Capdeboscqek ba-



Gorozika aterpetxea

Gorozika auzoa 25,
Muxika (Bizkaia)

www.gorozika.com

Harremanetarako:
946 731 332
gorozikanatura@gmail.com

LOPERENA ETXEBERRI landetxea

Goldaratz (Nafarroa)

☎ 948 503 238
casatxeberri@gmail.com



Baztanen
euskaraz gelditu gabe

Argazkia: Foto Mena



Baztango Udala
www.baztan.eus



ROKE DEUNA 25
20808 GETARIA (GIPUZKOA)
Tel.: 943 14 01 43
info@siaiazgetaria.com



**ARALAR
KAMPINA**

Plazaola kalea, 9
31870 Lekunberri
info@campingaralar.com
www.campingaralar.com



TOLDOAK · BEROGAILUAK · BIGARREN BATERIAK
ALARMAK · GIRATORIOAK · MULTIMEDIA

☎ 943 881 700 · Beasain (Gipuzkoa)
anzizar@anzizar.com · www.anzizar.com

serriko nondik norakoak ezagutzeko aprobetxatuko du esperientzia, egungo bizimoduak urrun uzten baititu baserriko ezagutzak hiriguneetatik.

Motxila bete poltsikoak ez husteko

Motxila bizkarrean hartuta hogeitaz herrialde inguru zeharkatu dituzte Margaritak eta Koxmek. Izen-abizenik ez dute eman nahi izan, baina beraien esperientzia orriotara ekartzeko prest agertu dira. Thailandian lurreratu ziren orain urtebete pasatxo, soinean behar-beharrezko gauzak soilik eta gehienetan autostop eginez mugitu dira hara-hona. Thailandia, Kanbodia, Laos, Txina, Mongolia, Kazakhstan, Kirgizistan, Tajikistan, Turkia eta Europako herrialde ugariak zizkizuten pasaportean.

Dirutza xahutu gabe ere bidaiatu daitezkeenaren frogak dira Margarita eta Koxme. Urtebete egon dira etxetik kanpo, eta 5.000 euro inguru behar izan dituzte bien artean. Horretarako aurrezki-makinaria guztia jarri dute martxan: kapritxoak alde batera utzi, txoko turistikoak ekidin eta tarteka lan egin. Diruagatik erosotasun askori uko egin badiote ere, jendearekin gertutasuna izatea eta ohiz kanpoko lekuak bisitatzeari lortu dute. “Gure museoa kalean eseri eta jendea ikustea zen”, dio Koxmek.

Urtebete horretan turistak izan ote ziren galdetuta, garbi erantzun du Koxmek: “Bidaiazten zaudenean, kanpotarra izateak nabarmen markatzen zaitu. Turista zara, nahi edo ez. Guk barre egiten diogu ‘bidaiaria’ edo *traveller* dela dion jendeari”. Bestalde, kontziente dira atzerrian bidaiazteko pribilegioa dela europarra izatea eta horri esker ere aurreratu ahal izan dutela. “Autostop egitean, Thailandian adibidez, oso erraz hartzen gintuzten. Ia-ia kotxearen kolorea aukeratu genezakeen”, esan du Margaritak.

Kalean lo egin dute maiz, beste batzuetan hostaletan edo lagunaren etxean. Errepideak zalgurdian, kamioietan edota motorrean zeharkatu dituzte. Europa mendebaldean aisia kontsumoarekin lotzen badugu ere, Margarita eta Koxmek diote beraiek bisitatu dituzten herrialde gehienetan ez zegoela horrelako ohiturarik. “Jatordu bakarrarekin eta eguna erreka baten ondoan emanda pozik egoten ginen, sinetsi genuen ez genuela ezer gehiago behar”, esan du Margaritak.



Sofatik sofara, munduan barrena

Kanpinetan edo lo leku ziurrik gabe bidaiatu nahi ez dutenek ez dezatela pentsa uda sasoiaren etxean igaro behar dutenik. Baserri munduak edo mundu zabal basatiak ez badu norbait behar beste erakartzen, teknologiak eta gizarteak jada eskuragarri jarri ditu beste hainbat aukera.

Libe Osa Arzuagak Perun egin zuen lehen aldiz “ezezagun” baten etxean lo, konpainia truke. Bost egun igaro zituen familia batekin, eurekin jatorduak eta aisialdi denbora partekatuz: “Bidaiazteko erreminta baliagarria iruditzen zitzaidan, baita jendea ezagutzeko ere”. Bigarren aldian hostel itxurako ostatu batean egon zen beste dozena erdi egun pasatzen. “Neska batek hostel modura jarria zeukan bere etxea, eta gela bat *couchsurfing*-eko erabiltzaileentzat gordea zuen. Esperientzia paregabea izan zen, eta hain eskertuta sentitu nintzen, ezen Euskal Herrira itzultzean nire etxea besteen eskura jarriko nuela erabaki bainuen”. Esan eta egin: etxera itzuli bezain pronto egitasmoaren berri eman zien gurasoei, eta familian adostu ahala, webguneko profila eguneratu zuten. Orokorrean, bidaiariak ingurua interesatzen zaien gaz-



Khovd (Mongolia). Bi gaztek kontatu digute nola bidaiatu duten urtebetean hoge herrialde inguru zeharkatuz eta bien artean 5.000 euro gastatuta. Argazkia eurek ateratakoa da.

» Europa mendebaldean aisia kontsumoarekin lotzen badugu ere, Margarita eta Koxmek bisitatu dituzten herrialde gehienetan ez zegoen horrelako ohiturarik: “Jatordu bakarrarekin eta eguna erreka baten ondoan emanda pozik egoten ginen, sinetsi genuen ez genuela ezer gehiago behar”

teak izaten direla dio Libek, eta pare bat egun etxean igaro ostean, alde egiten dutela. “Aukera merkea, aberasgarria eta ona da. Hori bai, denbora, esfortzua eta gogoia eskatzen ditu”.

Aipatutako hiru kontzeptuez gain, uda ezberdin bat igarotzeko aukera honek beste faktore bat eskatzen du: norberaren etxea edukitzea. Trukean beste norbaiten teilatupea jasotzea da xedea, ostatu hartzeak inongo kosturik ekarri gabe. Juan Carlos Reparazek “urte asko” daramatza Arbizuko etxea beste familia batzuen esku uzten opor garaian. Brugasen, Marsellan, Gironan eta Menorcan egon da, besteak beste, ezezagunek utzitako etxeetan familia giroan opor egunak pasatzen. Familia “ezezagunak” lehen unean izan ziren, gaur egun, hamar urteren ostean, batzuekin harremana izaten jarraitzen baitu. “Brujasen bi aldiz izan gara, hango etxeko jabeekin hartu-eman paregabea lortu baikeuen”. Etxe-trukaketa interneteko webgune baten bidez egiten da. Aukera paregabea dela dio Reparazek, baina “burua zabalik” izan behar dela ohartarazi du; ez baita ohiko joera izaten edonori norberaren etxeko atekarek pare zabaltzea. ■



KANPIN EKOLOGIKOA

Arbizu (Nafarroa)

☎ 848 470 922

info@campingarbizu.com

www.campingarbizu.com

PYRÉNÉES ATLANTIQUE
HOTELA



64310 SENPERE

T. 05 59 54 02 22 · hotel-pyrenees@wanadoo.fr

www.hotel-pa.com

URPA
autobusak

**22, 28, 31, 55 eta 60
plazakoak**

**Autobus literadunak
Europar zehar ibiltzeko**



Ubilluts auzoa · 55. poligonoa · 9. eraikina · 4
Andoain (Gipuzkoa) · Tel.: 943 305 050
www.autocaresurpa.com · info@autocaresurpa.com

JUSTIZIAREN ARRAKALAK ELKARTASUNEZ BETETA





DANI BLANCO

Ekainaren 13a, asteazkena, Altsasu. “Utzi Altsasu bakean” dioten banderek herriko balkoiak atontzen dituzte. Samina antzematen da, ez ordea dolurik ezta etsipenik ere. Aitzitik, herriaren batasuna eta indarra sumatzen dira. Koxka tabernan hiruzpalau altsasuar daude arratsaldeko kafea hartzen. 606 egun igaro dira bertan herriko gazte batzuen eta bi Guardia Zibilen eta beraien bikotekideen artean liskarra sortu zenetik. Bertan hasi zen dena 2016ko ferietako ostiralean, Nafarroako herri txiki bateko taberna batean. Eta lerrook idatzi artean, Madrilén da auzia, Auzitegi Nazionalean.



Miren Osa Galdona
@Mirentx_U

577 egun igaro dira Carmen Lamela Espainiako Auzitegi Nazionaleko epai-leak liskarra “terrorismoarekin” lotu eta Adur Ramirez de Alda, Jokin Unamuno eta Oihan Arnanz espetxeratu zituene-tik. “Aske geldituz gero ezin da ziurta-tu biktimen ondasun juridikoen kontra atentatu edo bestelako delituak egingo ez dutenik”, argudiatu zuen Lamelak.

60 egun bete dira atxilotuak askatzeko eskatuz Iruñean 50.000 pertsona el-kartu zirenetik.

Hamabi egun igaro dira Altsasun epaiaren berri izan zutenetik. Madril-go Auzitegi Nazionaleko Zigor Arloko 1. Sekzioko epaimahaiak ez zuen ter-rorismo deliturik atzeman liskarrean, ezta akusatuek “ETArekin lotura” edo bertan partaidetza dutenik ere. Alta, ter-rorismo delituak baztertu izanagatik ere, guztira 79 urteko kartzela zigorrak ezarri zizkieten zortzi gazteei; “kalteak, desordena publikoa eta mehatxuak” eta “agintearen aurkako atentatu” delituak leporatuta. Zazpi egun besterik ez dira pasatu ekainaren 5eko goizean Guardia Zibilak herria hartu eta Jon Ander Cob, Aratz Urrizola, Iñaki Abad eta Julen Goi-koetxea atxilo eraman zituenetik.

Kolpea latza izan zen, beste behin. Epaiaketaren ostean indarrak hartu eta aurrera jarraitzeko nahiko kemen izan-go zutelakoan ziren gazteen senideak eta lagunak. Akusazioak, baina, ez du gaur-gaurkoz barealdirik onartzen, eta ekaitza leherrarazi zuen manifestazioa-ren bezperetan: “terrorismo delituen-gatik” epaitzeko Fiskaltza helegitea jar-tzeko asmotan zela jakin zen prentsaren bidez. José Perals Auzitegi Nazionaleko fiskalak 12 eta 62 urte arteko kartzela eskatu zuen, “lesio eta mehatxu terro-



Maddi Txintxurreta Agirregabiria
@mtxintxurreta

ristak” egotzita. Kolpeak kolpe, orduan inork ez zekien hiru egun beranduago Iruñea elkartasunaren arnas-gune bila-katuko zela.

Gurasoak bihotz-buru, herria gorputz

“Sekula manifestazio batera joan ez den jendea dago hemen. Denok gaude. Hau izugarrizko bidegabekeria da”, dio Iruñeko Sadar futbol zelai inguruko jen-de-saldoan barrena ia ibili-ezin dabilen gazte batek. “Hau ez da justizia” pan-karta eta seme-alaben irudiak helduta abiatu dira manifestazioaren buruan Altsasuko Gurasoak, eta atzetik Euskal Herri osotik, Kataluniatik eta Espainia-ko Estatuko hainbat lekutatik etorritako jendetza. 80.000 pertsona baino gehia-go zenbatu dituzte antolatzaileek, se-kula Nafarroak jaso duen manifestazio jendetsuenetako bat.

Estu geratu da Zaragoza etorbide za-bala, motz manifestazioko 2,5 kilome-troak, txiki Iruñea. Ibilbide osoan zehar “Altsasukoak aske”, “Hau ez da justizia” oihuak eta txalo zaparradak entzun dira. “Altsasu Aurrera” kantua abestu dute Mikel Markezek, Estik, “*El Drogas*”-ek eta Jon Maiak, eta “txarrenari onena” entzun dute bozgorailuetatik Askatasu-naren Plazako ekitaldira iritsi ez diren manifestariak, “zaurietan muxu” abestu du Jon Maiak segidillan ondoren. Gaz-teen senideak ohol-tza gainean “eske-rrrik asko” mezu erraldoiari tinko eutsiz amaitu da ekitaldia, herriaren maitasu-na eta babesa sentituz. Pankarta hori, hiru makilekin hartu eta manifestazioa-ren kontrako norabidean atera da, jen-detzaren buru gainetik pasaz, amaiera ekitaldira heldu ez diren milaka lagun-en txalo zaparrada hunkitua eraginez.



Manifestazioaren biharamunean, egunkari askok azalean jaso dute Iruñeko argazkia. Sare sozialetan ere milaka mezu ospatu dute larunbateko garai-pena, eta itzulerako autobusetan ere antzeman da antolatzaileek hauspotutako indarra.

Lau hankako muntaia

"Berriro ere aldatu digute manifestazioaren ibilbidea", esan dio Eneko Mendiluzek Aritz Leozi, mobilizaziorako hiru egun falta direnean. Altsasukoak Aske plataformako kideak eta atxilo duten Iñaki Abaden lagunak dira biak. Nekatuta daudela diote, azken urte eta erdian bezala. Hala ere, irribarretsu agurtu dira, eta indarrak soberan dituztela diote. "Niri bizitza goitik behera aldatu dit kontu honek –azaldu du Leozek–. Hasierako atxiloketak gertatu aurretik lanean hasi ginen herriko batzuk. Nire azken bi urtetako lehentasuna hau izan da. Aisialdia luxua bihurtu da". Prozesu guztian zehar aldarrikatu bezala, auzia "mendeku hutsa" dela diote, eta muntaia poliziala mahai baten hanka bakarra dela: "Lau parametrotan kokatzen dugu muntaia: juridikoa, politikoa, poliziala eta mediatikoa". Muntaia mediatikoa akusazioaren diskurtsoa sortzeko eta elikatzeko "ezinbestekoa" da, eta hainbat komunikabideek kontakizuna "eraiki eta hauspotu" dute bi lagunentzako hitzetan.

"Niretzat oso adierazgarria da sententzia, inflexio puntu bat markatzen baitu. Estatuko zenbait indarrek duela urte batzuetako dinamikarekin jarraitu nahi dutela ikusten da, egitura mantenduz. Sententzia honek beste bide batzuk irekitzen ditu Estatuaren jokaerari begira: antzeko beste kasu bat gertatuz gero, Altsasukoa izango dute eredu gisa", aipatu du Leozek. Baietz dio Mendiluzek, gaiak sorrarazten dion amorrua ezkutatu ezinik: "Sentitu dugu lagunak bahitu dizkigutela, indarraren poderioz". Zientzia fikziozko film batean daudela iruditzen zaie, eta beren ustetan, hilabete hasierako atxiloketek berretsi egin zuten errealitatearen eta fikzioaren arteko talka.

Goitik behera: manifestazio historikoa Iruñean. Bigarren argazkian, Igone Goikoetxea eta Bel Pozueta, Altsasuko Gurasoak elkarteko kideak. Hirugarrenean, Aritz Leoz eta Eneko Mendiluze, Altsasukoak Aske plataformako kideak.

“Mina ematea bilatu zuten. Oso-oso gaizki pasatu genuen, eta izugarria izan zen aurreko egunetik herrian pairatu genuena. Polizia herritik zebilen, edozein ertzetan, grabaketak egon ziren, eta antzematen zen zerbait arraroa gertatuko zela. Hala ere, ez genuen alarma sortu nahi, batzuetan hori bilatzen baitute, gatazka bilatzea. Hori saihesteko gaitasuna erakutsi dugu”, adierazi du Leozek. Iñaki Abaden kasua ekarri du gogora: “Ikustea nola ikaragarritzko duintasunarekin gerturatu zen Guardia Zibilarengana, beren aitzakia ihes egiteko arriskua zela bazen ere. Eta hara zer arrisku! Jakinda berak ez duela ezertxo ere egin, akusazioak gezur hutsak direla, eta akusatzaileak gezurtiak, duintasun osoarekin joan zen eta atxilotu zuten. Niretzako irudi hori goiz horretako sinbolo bihurtu da”.

“90eko hamarkadako eszena bizi izan genuen atxiloketen unean”, dio Bel Pozuetak oraintsu arte aske zeuden lau gazteen inguruan. Bere semeak, Adur Ramirez de Aldak, hamazazpi hilabete daramatza Soto del Realgo espetxean, eta Altsasuko gazteen auzia bere bizitzaren erdigunea bilakatu da: “Jaikitzen naizenetik berriro ohean sartzen naizen arte, denbora guztian daukat buruan. Gainera, komunikatzeko, elkarbanatzeko eta borrokatzeko hartu dugun konpromisoa erabatekoa izan da”. Konplizitatez begiratu dio Igone Goikoetxeak, Pozueta zer ari den bizitzen jakinda: “Gure bizitzaren parte bilakatu da auzia. Gutxi bizi gara oraintxe bertan. Baina gauza txarrekin bezala, minbiziarekin kasu, zure bizitza da eta horrekin aurrera egin behar duzu. Etxean jada ez ditugu elkarrizketa arruntak izaten, guztia Jokini laguntzeko bideratuta pentsatzen dugu”. Estremerako kartzelan preso dagoen Jokin Unamunoren ama da bera. ARGIArekin egon direnean, 577 egun daramate preso Unamunok eta Ramirez de Aldak, Oihan Arnanzekin batera, behin-behineko egoeran.

Txanponaren bi aurpegiak

Espainiako Auzitegi Nazionalak ekainaren 1ean eman zuen aditzera sententzia, epaiketa amaitu eta hilabete eta gutxira. Aritz Leoz eta Eneko Mendiluze altsasuarrek ez zituzten zigor eskaerok espero: “Itxaropentsu geunden, oso modu nabarmenean ikusi baikeuen epaiketak ez zuela zentzurik. Guztion sentsazioa

» **BEL POZUETA:**
“Altsasu herria inoiz baino batuago dago”

» **IGONE GOIKOETXEA:**
“Gure bizitzaren parte bilakatu da auzia. Gutxi bizi gara oraintxe bertan. Baina gauza txarrekin bezala, minbiziarekin kasu, zure bizitza da eta horrekin aurrera egin behar duzu”

» **ARITZ LEOZ:**
“Lau parametrotan kokatzen dugu muntaia: juridikoa, politikoa, poliziala eta mediatikoa”

» **ENEKO MENDILUZE:**
“Sentitzen dugu indarraren poderioz lagunak bahitu dizkigutela”

zen beren muntaia hasieratik bukaerara gidoi batean idatzita zegoela. Sententziarekin agerian geratu zen kasu honek justizia ez dela inondik inora atzetan. Egun horretan, jende askok negar egin zuen Altsasun. Bestelakoa zen, ordea, Pozuetaren eta Goikoetxearen susmoa. Zigorrok espero zituzten. Areago, badakite “Auzitegi Nazionala zer den”, eta beren semeen kontrako sententziek ez dituzte harritu, beste akusatu batzuk baino “aldarri politikoagoak” dituztelako. “Epaiketaren ondoren esaten genuen: judizialki irabazi dugu, baina gure abokatuek ohartarazi ziguten Auzitegi Nazionala judiziala ez ezik politikoa ere badela. Kontrola, mendekua eta Guardia Zibila ukiezina dela bermatzea du helburu”, adierazi du Bel Pozuetak. Gainontzeko gurasoek, agian, epaia ezustean

jaso zutela aipatu du Goikoetxeak, izaera desberdinetako pertsonak osatzen baitute bai Altsasuko Gurasoen taldea eta baita akusatuena ere. Izaera ezberdina izanagatik ere, borrokatzeko arrazoiak eta helburua partekatzen dituzte: “Hau erabat traumatikoa da. Militantzia baten ondorioz espetxeratzen bazaituzte, jakitun zara gerta zitekeela. Hau, berriz, guztiz desberdina da: bahitu eta bizitza lapurtzen dizute, gazteei nahiz senideei”.

Txarrenari onena

Espero arren, semearen aurkako hama-bi urteko kartzela zigorra burutik kendu ezinik igaro zuen epaia jakitera eman zen eguna Igone Goikoetxeak: “Beti min pixka bat gehiago ematen digute”. Bestelako mezua igorri zion, ordea, Jokin Unamunok telefonoz. Terrorismoaren kalifikazioa kenduta “pozik egon behar lukeela” esan zion amari, hortik aurrerakoak ezin zuela okerragoa izan. Semea kementsu dagoela dio, datorrenari heltzeko indarrez. Estremerako kartzelan bisitarik eta laguntzarik jasotzen ez duten presoak ezagutu ditu, inongo sostengurik gabe bizirauten dutenak. Hauek ez bezala, herri oso baten babesa sentitzen dutela kontatu zion Jokin Unamunok amari. “Berandu bada ere, manifestazioetako argazkiak eta elkartasun mezuak jasotzen dituzte kartzelan”, dio Goikoetxeak. Ekainaren 5ean atxilotutako lauek ere kalean bizitako elkartasuna eraman dute ziegetara eurekin, apirilaren 14ko manifestazioa kasu.

Ariketa praktiko bat jarri zion Goikoetxeari semeak: “Egizu taula bat guzti honek ekarri dituen gauza on eta txarrekin”. Semea preso izateak “ezerk baino samin gehiago” eragiten dion arren, Goikoetxeak jasotako babesa, elkartasuna eta borrokarako indarrak nabarmendu ditu: “Herritar zoragarritz inguraturik gaude”. Hedabide sentsazionalistek Altsasu bitan banatuta dagoela saldu nahi duten arren, errealitatea bestelako da. “Herria inoiz baino batuago dago”, dio Bel Pozuetak, egindako bidea zein nekeza izan den jakitun. Manifestazioetara, elkarretaratzeetara eta antolatzen dituzten hainbat ekimenetara ideologia askotariko bizilagunak joaten direla azpimarratu dute, babes emozionala ez ezik, ekonomikoa ere etengabea ari dela izaten diote. Honen aurrean, esker oneko hitzak baino ez dituzte, eta aldarri garbi bat: “Utzi Altsasu bakean!”.

AMAIA IZKO: “AZKEN ATXILOKETAK PROPAGANDA OPERAZIOA IZAN DIRA”

Altsasuko gazteen defentsako abokatuetako bat da Amaia Izko. Auzia zertan den mintzatu da ARGIArekin, Iruñean manifestazio erraldoia abiatu baino ordu batzuk lehenago.

Behin behineko epaia jakin ostean, zein da zuen balorazioa?

Jokaldi borobila egin dute. Hasieratik esan dugu egitate hauek goraipatu, handietsi eta puztu egin direla. Kontakizun artifizial bat egin dute terrorismoaren kalifikazioa justifikatzeko, eta epaia bera erabat lekuz kanpo dago. Lehen unetik esan dugu juridikoki ezin dela terrorismoaren kalifikazioa mantendu eta epaiak hala jasotzen du. Funtsean, beren helburua zigor eredugarri bat ezartzea izan da, gaia oso modu larrian tratatuz eta zigor altuak jarritz. Terrorismoaren kalifikazioa kendu arren, egitate batzuk Zigor Penalak terrorismotzat hartzen dituen moduan zigortu dituzte. Sententzia hasieratik hona bideratuta egon da: ez da frogen azterketa objektiborik egin, froga guztiak zigortzearen helburuarekin irakurri dira, bai akusazioak aurkeztutakoak, baita defentsonak ere. Gertatutakoarekin bat ez datozen termino batzuk erabili dira zigorrak handitzeko.

Epaiketan ez ziren onartu defentsak aurkeztutako hainbat frogak.

Hasieratik argi geratu da gertaera salatu zutenen bertsioari baino ez ziela emango sinesgarritasun osoa. Hori dela eta, oso tarte estua utzi zaigu justifikatzeko eta defentsa egiteko. Giroa beti egon da beren alde lerratua eta hori oso arriskutsua da epaiketa baterako. Ez dator bat zuzenbidearen printzipioekin. Helburua horrela-ko zigorrak ezartzea izan da eta edozein aitzakia tekniko, juridiko edo edozein argudiori heldu diote defentsari ahalik eta aukera gutxien uzteko. Akusatuei epaiketa justu bat izateko eskubidea eta berme guztiak kendu zaizkie.

Jurisprudentzia sor dezake Altsasuko gazteen auziak?

Auzi honek bi alde ditu, bata ona eta bestea txarra. Alde positiboa da epaiak ez duela auzia terrorismotzat jo, nahiz eta



JOSU SANTESTEBAN

Fiskaltzak esan duen helegitea jarriko duela hala ebatzi dadin. Honek lotura zuzena du Oleretako eta Beasaingo gazteen sententziarekin, termino berak zehazten baititu terrorismo kalifikazioari dagokionez. Estatuak lerro argi bat zabaldu nahi du edozein disidentzia, Estatuaren izaera zalantzan jartzea edo aldarrikapen politiko terrorismotzat hartzeko. Ez du jurisprudentzia sortuko, baina aurrekari gisa erabili ahalko da hemendik aurrera. Aldiz, hori guztia konpentsatzeko, zigorrak guztiz desproporzionatuak dira, eta horretan ere badu arriskua prozesu honek. Horrela-ko kalifikazio artifizialek Auzitegi Nazionalen epaitzeko bidea zabaldu baitezake, nahiz eta gero esan ez dela terrorismoa eta zigor oso handiak ezarri justifikazio moduan.

Helegitea aurkeztuko duzuela esan duzue. Zein bide dago egiteko hemendik aurrera?

Sententziaren aurkako lehen helegitea apelazio aretoan aurkeztuko dugu, Au-

zitegi Nazionalean, egitateak gertatu ziren denborarengatik erreformatuta baitzegoen legea. Bermerik eskaintzen ez digun jurisdikzio batean aurkeztu beharrak kezka sortzen digu. Gainera, prentsaren bidez jakin dugunez, Fiskaltzak ere helegitea jartzeko asmoa du terrorismotzat har dadin eskatuz. Honek hasierako lekura itzularazi gaitu modu batean. Ezin dugu lasaitu.

“Ihes egiteko arriskuagatik” atxilotu zituzten gainontzeko gazteak. Nola uler daiteke hori?

Propaganda operazio bat bezala, kitto! Termino juridikotatik ez dira inoiz justifikatuta egon ez hasierako atxiloketak, ez hiru gazteen behin behineko espetxealdiak, ezta atxiloteta hauek ere. Ez da inoiz egon ihes egiteko arriskurik, hori hala dela dioten hainbat frogak

daude. Esaterako, Iñaki Abad Guardia Zibilarengana joan izana atxiloketen unean. Baita gainontzeko gazte guztiak etxean zeudela ere. 50 urteko espetxe eskariaren berri izan zutenean inork ez zuen ihes egin. Lehen unetik azkeneraino hor egon dira. Propaganda besterik ez da izan.

Zer espero da manifestazioaz? Eraginik izan dezake azken erabakian?

Ikaragarria izango dela uste dut. Gure tes-tuinguru geografiko eta politikotik ematen ari diren zentzugabekeriaren erantzuna izan dadila nahiko nuke. Altsasuko auzia ez da kasu bakarra, baina bai handienetarikoa. Hori gelditzeko, baldintzatze-ko eta hausteko modu bakarra mobilizatzea da, arlo guztietan. Alegia, honen aurkako iritzi kritiko erabatekoa sortzea. Ikusi dugu Estatuak ez duela egoera aldatu nahi izan, are gehiago, estutu nahi izan duela. Presioa egiteko eta atzera begirako jarrera alboratzeko balio dezala behintzat. Lortuko dugun? Ez dakit, baina ziur naiz aldaketaren bidea hau dela. ■

ERDI AROKO HARREMAN EZ IKUSIAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Worms (Renania), XI. mendea. Burchard apezpikuak gizonaen arteko sexu harremanak zigortzen zituzten legeei emakumeen arteko harremanen kondena erantsi zien, baina soilik sexu harreman horietan dildoa erabiltzen baziren. Zakil artifiziala beren buruarekin erabiltzen zuten emakumeek urtebete-ko kartzela zigorra jasoko zuten, bost urtekoa beste emakume batekin erabiliz gero, eta zazpikoa emakume hura moja izanez gero –mojak Kristorekin ezkondu zaiden eta, beraz, adulterioa eranstean zitzaion zigorrari–. Hortaz, lesbiana izateak, printzipioz, ez zekarren ondorio judizialik, tartean dildorik ez bazegoen.

Hurrengo mendean, Maria Frantziakoa (1160-1215) olerkariak, bere *lais* edo poema laburretan, horrela deskribatu zuen beste emakume batekiko harremana: “Musu nola ematen zenidan eta hitz goxoz nire bular txikiak nola lantzen zenituen gogoratzen dudanean, hil nahi nuke, ezin zaitudalako ikusi”. Askok ez badira ere, garai hartako beste antzeko adibide batzuk badaude, eta ez dirudi horregatik inor asaldatu zenik.

Baina horrek ez du esan nahi Erdi Aroko Europa paradisu lesbikoa zenik, hau da, ez zigortzeak ez zuen esan nahi onartuta zegoenik. Besterik gabe, harreman horiek ez zituzten kontzebitzen.



Historialari eta antropologo askoren arabera, Erdi Aroko europar gehienentzat lesbianismoa ez zen ez krimena, ez bekatua. Garai hartan oso prozesu gutxi zabaldu ziren harreman lesbikoak izan zituzten emakumeen aurka eta gehienetan akusazioak atzera bota zituzten. Burchard apezpikuak hartutako neurriek erakusten dutenez, garai hartako mentalitatearen arabera, zakil (natural edo artifizialik) gabe ez zegoen sexurik.

Sexuaren kontzeptio mugatu eta estu hori gaur egun zabaldua dago oraindik, baina ez ikusiarena egitea Erdi Aroarekin batera bukatu zen. XIII. mendean, zehazki 1260an, Orleansen, *Li Livres de*

Maria Frantziakoa olerkariak eduki lesbikoa zuten poemak idatzi zituen XII. mendean, baina ez zuten eskandalurik eragin.

Justice et de Plet onartu zuten, harreman lesbikoak krimenez jotzen zituen lehen kode zibila. Jainkozko zuzenbidea eta zuzenbide zibilaren arteko harremana estutzen ari zen. Eta Aro Modernoa ate joka ari zela, 1477an, lehenengoz idatziz jasota geratu zen emakume bat heriotzara kondenatu zutela beste emakume batekin harremanak izateagatik. Katherina Hetzeldorfer zuen izena eta Rhin ibaian ito zuten. ■



ARCA

Sotheby's, Grezia eta jabetza legitimoa

New Yorkeko Sotheby's enkante etxeak demanda jarri berri dio Greziako Gobernuari, irudian ikusten den brontzezko zaldia “jabetza legitimoa argitzeko asmoz”. Greziako Kultura Ministerioak lehenago ere oso argi zeukan artelanaren jatorria eta haren lehentasuna Antzinaroko obra lapurtuak berreskuratzeko eta ondare historiko eta kultura-

la babestea da. Horregatik eskatu zuen joan den maiatzaren 14an enkantean saldu behar zuten eskulturatxoak erretiratzeko. Enkante etxearen erantzuna ez da batere ohikoa, halakoetan gobernuarekin objektuak itzultzea negoziatzen baitute. Sotheby's-ek “bide berri bat” zabaldu nahi izan omen du, baina ondarearen espoliazioa bide zaharra da. ■

Hazkuntza komunitarioa

Bularreko anai-arrebak

Umeak eta bularrak. Zenbat emakume, hainbat kontakizun. Guk garai batekoak bildu ditugu, eta hiru testigantza jaso. Bularrik hartu ezinik zebilen umeari beste emakumeek eman ziotenekoak. “Mamadoreak” edo “mamoia” ere hor ziren: emakumeei bularreko gaitzak sendatzeko edoskitzen zutenak. Galtzen doazen, aldatzen doazen hazkuntza komunitarioaren lekukotzak denak. Inguruan galdetuz gero, aurkituko dugu zer kontatua duenik.



Iñaki Sanz-Azkue

@sanz_azkue

ARGAZKIA: DANI BLANCO

“Hil arropak ere prestatu omen zituzten niretzat jaio nintzenean!” esan digu Emilio Iridoy-k (1946, Hondarribia). Bere amak ez omen zuen esne nahikorik bularrean semea aurrera ateratzeko. Eta ahuleziaren ahuleziaz, larri izan zen Iridoy: “Hilzorian izan omen nintzen. Horrela kontatu izan didate beti etxean. Nik bularra hartzen nuen baina... hil-arropak josten ari zenak esan omen zion gure amari: ume hau gose da! eta horrela eraman ninduten bizilagunen etxera”.

Inguruko bi emakumek ume jaioberriak zituzten, eta haiengana eramaten zuten bularra hartzera. Oraindik ere badu harremana bere bularreko anai-arrebekin. Arreba eta biak erdi-txantxetan ibiltzen omen dira kontu hori dela eta.

Umea besoz beso, bularra ondo helduko zain

1945ean izan zuen umea Angela Gari- nek (1916, Lazkao). Bere ahizpa Loren- txak ere ez zuen askoz beranduago izan. Baina Lorentxari semeak ez zion ondo heltzen bularra, eta esnea hartzeko zail- tasunak zituen. Ane Larrañagak gogoan ditu bere ama Angelak kontaturikoak.

“Gure amak ez zuen dudarik egin. Ume jaioberria hartu eta Lazkaotik Usurbile- ra arteko bidea egin zuen, ahizpa Usur- bilen bizi baitzuen. Behin iritsita, haren haurra besotan hartu eta bere bularrean jarri zuen. Gure amaren bularra hobe- to heltzen zuen umeak. Ondo helduta zuela ikusten zuenean, gure amak bere bularretik ahizparenera pasatzen zuen umea, eta horrela behin eta berriz, harik eta haurrak bere amaren titia ondo har- tu zuen arte”. Umeak ikasi zuela ikusita Angelak Lazkaorako bidea hartu zuen berriro, ahizparen haurrak esnea ondo hartzen zuen lasaitasunarekin.

Etxeko haur denentzat esnerik ez

Donostiako Gurutze Gorrian erditu zen haurraz Marixa Mitxelena (1941, Donostia), 25 urte zituela. Elixabe- te Muñoz, alaba, espero baino hilabete lehenago jaio izanak eragina izan zuen antza, eta segituan ohartu ziren jaio- berria ez zegoela ondo. Odol jario han- dia zuen ahotik eta birrikak ondo garatu gabe zituen; Donostiako ospitalera era- man zuten txikia.

Jaio eta bi egunera egin zion lehen- dabiziko bisita amak alabari. Mitxele- na ospitalera igo zenean haurra gaizki zegoen: “hodiak zituen gorputz osoan, eta oraindik esnerik ez emateko agindu

zidaten medikuek. Larri zegoen”. Egun gutxian, ordea, amak bularra eskaintze- ko aukera izan zuen, eta oso pixkanaka bada ere, Muñoz indartzen joan zen. Mi- txelenak atzo izan balitz bezala kontatu dizkigu egun haietan gertaturikoak. 52 urte pasa badira ere, Elixabeteren jaio- tzarekin bizi izan zituenak betiko gorde zaizkio memorian. Sentimendu askore- kin kontatu digu gertaturikoa: “Goize- tan baino ezin genuen joan alaba ikus- tera. Batzuetan bular pixka bat ematen nion, eta beste askotan kristalaren beste aldetik ikusten nuen. Muñoz esnea har- tzen hasi zenean, ordea, medikuak kris- talezko botila lodi bat eman zidan. Bu- larreko esnearekin hura bete, hotzean gorde eta egunero-egunero ospitalera eraman behar nuela agindu zidan. Se- nideek etxea zuten Donostian eta euren etxean geratu ginen bizitzen. Gurasoak, gure familia eta 13 anai-arreba ginen etxe berean! Haiek komeriak, haiek!”.

Amak hutsik egin gabe igotzen zuen esne-botila egunero. “Apirila hasieran, Alustiza medikua gerturatu zitzaidan, gure alaba osatu zela eta etxera joan gintezkeela esanez. Bazekien Oñatin bizi ginela, baina mesede handi bat es- katu behar zidala aipatu zidan. Itxuraz nire alabarentzat egunero betea erama- ten nuen esne-botilaren zati handi bat



Hondarribiko Okila baserrian ematen zion bertako emakumeak bularra Iridoyri. Bertan bildu ditugu hiru testiguak: Emilio Iridoy, Ane Larrañaga (zutik) eta Marixa Mitxelena.

leku berean ingresatuak ziren anai hirukietako biri jaten emateko erabiltzen zuten. Haien amak bost seme zituen, eta bat-batean hirukiak etorri zitzaizkion! Amak ez zuen esne nahikorik denak asetzeko, eta ume horiek ez zuten nire esnea besterik. Alustizak garbi esan zidan, nire esnea zela ume horien medizina bakarra". Mitxelenak ez zuen dudarik egin: "Beste amaren lekuan jarri nintzen. Alustiza medikuari esan nion lasai egoteko. Egunero atera behar banuen, aterako nuela. Eta horrela egin nuen".

Mitxelena Donostian geratu zen hila-bete batzuetarako eta ekaina bitartean goizero igo zuen botila-esne ospitalera. Ander urtebeteko semea alboan zuen eta Elixabete jaioberrria bular eskean, baina era batera edo bestera egunero esnea atera eta iristen zen ingresatuak ziren anaiengana. "Gehienetan nik eramaten nuen, baina ezin nuenean senideren bati eskatzen nion. Ezin genuen hutsik egin!".

Ekainetik aurrera esne gehiagorik ez zuela eraman behar esan zioten Mitxelenari ospitalean. Ordutik aurrera ez du ezer gehiago jakin anai haiei buruz; gaur arte. Izan ere, lagun batzuen bitartez hirukiekin harremanetan jartzea lortu dute, eta egin dute zita. "52 urte igaro dira, baina beti izan dut gogoan kontu

"MAMADOREAK": BULARREKO MINAK SENDATZEKO TIRATZEN ESPEZIALISTAK

Urte honen hasieran zendu zen Usurbilen Jesus Arruti Gonzalez-Etxabarri, 1940an Asteasuko Azkonita baserrian jaiotakoa. Gaztetan mamadore aritu zela esaten zuen, naturaltasunez. Azkenengo aldiz, grabagailuaren aurrean kontatu zuen:

"Emakumeak familia izan eta umeak tiratzen ez bazuen, faborez eskatzen zidaten joango al nintzen tiratzera. Nik 16-18 urte izango nituen. Hots-egiten zidaten garaian joaten nintzen, egunez bezala gauez. Gure arreba zaharrena ere asko ibili zen mamadore". Ontzia jartzen zuen aldamenean, eta edoskitutako esnea txartua bazegoen, ahoratu orduko ontzira botatzen zuen. Emakume ba-

tzuengana hiru-lau aldiz joan behar izaten zuen segidan, beste batzuek behin aterata nahikoa izaten zuten. "Gero esnea ateratzeko erremintak ugaritu ziren eta mamadoreak bukatu ziren".

Arrutiren ume garaian oso arrunta zen esne nahikorik hartzen ez zuen umea beste emakume baten bularrean jartzea: "Inguruan bost-sei baserri baziren, eta umea egindako hiru-lau emakume, batek esne gutxi zuela eta besteak asko, umea auzoko etxera eramaten zuten. Igual ematen zituzten auzoko etxean hiru-lau egun, amari esnea etorri edo bularra sendatu arte".

Estitxu Eizagirre Kerejeta

hau. Aterako ote ziren anai horiek galdetzen nion nire buruari... baina ez dut ausardiarik eduki hirukiak bilatzeko, eta orain poz-pozik nago. Pena bakarra dut, ordea, ama duela bi urte hil zitzaielako esan baitidate". Denbora gutxian elkar-

tuko dira denak mahaiaren inguruan, Hondarribian. Marixa Mitxelena eta sendiarekin batera izango dira bularreko anai-arrebak: Elixabete Muñoz eta hirukiak. Inoiz ez da berandu bularreko anai-arrebak elkar ezagutzeko! ■

Beñat Garaio eta Ane Pedruzo

“EuskarAbentura hiztun gazteen aktibazio dinamika da, udaldian beteko dena”

Euskaldunaren aktibazioa helburu, hamaika ekimen berritzaile dira bazterretan. Horietan bat da EuskarAbentura (euskarabentura.eus), uztailaren lehenengoan Maulen hasi eta hil beraren 31n Getxon amaituko den ibilia. Zazpi euskal herrietako 110 gaztek hartuko dute parte; tartean, bi diasporakoak izango dira, bata Argentinako Patagoniakoa eta bestea AEBetako Washington Hirikoa. Ane Pedruzo Redondo (Gasteiz, 1985) Oihaneder Euskararen Etxeko teknikaria, eta Beñat Garaio Mendizabal (Gasteiz, 1990), soziolinguistika ikerlaria dira antolatzaileetako bi.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIA: ARABAKO ALEA

Pausoak eman behar izan dituzue asmoa gauzatu bitartean.

Abenduaren amaieran aurkeztu genuen EuskarAbentura Iruñeko Katakraken. Euskalgintzan diren askotariko elkar-teekin bildu ginen: Topagunea, Kontseilua, Agirre Lehendakaria Zentroa, Gazteriaren Kontseilua, Unesco Etxea... Sostengua nahi genuen, eta sustapenean lagun ziezaguten. Eskerrak haien babesari, gu hamar gazte zoro baino ez ginen eta. Bataren sostenguak bestearena ekarri zuen. Aurreko horien laguntza sinbolikoa genuela, erakundeetara jo genuen diru-laguntza eske. 110 gazte izango direnez, 133.000 euro beharko ditugula kalkulatu genuen, gazteak bekatuta baitoaz, ezer ordaintzen ez dutela. Babesle ditugu BBK, Euskadi-Akitania Elkargoa, Eusko Jaurilaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Getxoko Udala, Euskaltel, Eroski, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiak, hiriburueta-

ko udalak, Euskaraldia bera... Bestalde, EuskarAbenturak ibiliko dituen herrietako udalek azpiegitura eskaini digute: lotarako leku jakin bat utziko digute, segurtasuna bermatuko dute, hainbat hitzaldi, tailer eta jarduera gauzatzeko aretoak utziko dizkigute...

16 eta 17 urteko gazteek hartuko dute parte.

EuskarAbentura ez da umeentzakoa, ezta 20 urtetik gorakoentzat ere. Nortasuna garatzen den garaian dagoen gaztea nahi genuen, esperientzia honek markatuko dituela uste baitugu. Batxilergoko lehen mailako ikasleek ohi dute udarik luzeena, autonomoak dira, eta haietara jo dugu. Badakigu 18 urte betetzen dituztenean bestelako bidaiak egingo dituztela. Adin egokia zaigu 16-17 urte. Ikastetxez ikastetxe ibili da gure taldeko Josu zuzeneko aurkezpenak eginez. Eta aurkezpen horietatik batu zaizkigu gazteak.



Nola hautatu dituzue parte hartuko dutenak?

Lan bat egin behar izan dute –ikus-entzunezkoa egitea erabaki dute batzuek, eskulana beste batzuek...–, eta motibazio gutuna ere idatzi behar izan dute. Horren arabera ebaluatu ditugu eskaerak, Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin. Oso lan politak jaso ditugu. 140 gaztek eman zuten izena eta 110 lagun hautatu ditugu azkenean. Jakin-min berezia duten gazteak dira, gutunetan ikusi dugunez. Beraiek ezagutzeko irrikan gauden, zeren oraindik ez ditugu ezagutzen. Asko emango digutela sumatzen dugu.

Zein ditugu EuskarAbenturaren helburuak?

Lehenengoa, euskararen erabileran eragitea, esperientzia positibo baten bidez. Bigarrena, gazteen sarea sortzea. Gazte sare hori, bistan da, euskaraz sortuko da, eta gazte bakoitza eragile aktibo izango da gero bere herrian. Euskararen aldeko hautua modu naturalean eta “guai” egiteko modua izan liteke EuskarAbentura. Bestalde, Euskal Herriko ondarearen ezagutza sakontzea ere helburuen artean dugu, tokiak ez ezik, jendea ere ezagutuko baitute. Azken helburua, berriz, balio positiboak

kal Herriko egoera soziolinguistikoa ezagutu dezaten nahi dugu, eta horretaz hitz egingo diegu. Gipuzkoan Kike Amorrarriek hitz egingo digu, Bizkaian Jone Goirigolzarrik... Hainbat arte diziplinari buruzko hitzaldiak izango dira, eta sormen prozesu bat biziaraztea ere proposatuko diegu. Ander Lipusek ahots adierazpena gidatuko du, Miren Amurizak eta Odei Barrosok hitza landuko dute, Kukai taldeko Myriam Arkaia gorpuz adierazpena, Jose Ignazio eta Kattalin Ansorenak inprobisazioa, eta Ximun Fuchsek eszenografia. Bi eguneko formazioa jasoko dute gazteek, binaka, eta biko bakoitzak jasotako formazioa, gainerakoekin partekatu beharko du. Arte sormenaren prozesua bizi eta gero, uztailearen 30ean, Bilboko Arriaga plazan ikuskizun txiki bat osa dezaten da helburua, ikasi dutenetik EuskarAbenturaren laburpen kolektibo gisakoa eginez.

Horretaz aparte, beste zenbait gauza ezagutu dezaten saiatuko gara, dela auzolan esperientzia, edo orientazioa, Euskal Herriko kirolak... Uztailearen 7an Iruñean izango gara tarte batean Takonean Nafarroa Oinezakoekin, ordutegia egokitu baitute guhan izan gaitezen.

Jende askok bat egin du gure asmoarekin. Añanako Gesaltzako alkatea Maulen izango da, EuskarAbenturaren abiatzean. Argantzonen ere (Trebilñu) gure zain dira. Jendea gogoz dago, eta gu ere bai.

Zergatik sentitu duzue EuskarAbentura sortu beharra?

Euskalgintzatik gatoz, eta bistan da euskararen erabilerari dagokionez, gazteen artean hutsunea dagoela. Baita gazte ez direnen artean, baina tira! Gu gazte gara, eta euskararen erabilpenari ekarpena egin nahi diogu, gustuko dugun eta ezagutzen dugun formatuan, nazio

ikuspegia erantsiz, zazpi herrialdeetako jendeak eta diasporakoak batera jarritz.

Harremanik bada EuskarAbentura eta Euskaraldiaren artean?

Esan dugu Euskaraldia gure babesleen artean dugula; haren publizitatea ere erakutsiko dugu. Ideia egosten hasi ginenean, Euskaraldiaren berririk ez geneukan. Ari ginela, jakin genuen Euskaraldiaren berri. Ordurako, euskararen erabilera sustatzeko ekimena zen EuskarAbentura. Euskaraldia egingo zela jakin genuenean, izugarritzko bultzada jaso genuen. Euskaraldiak tresnak emango dizkigu gure hizkuntza praktikak sendotzeko, eta guk horiek erabiliko ditugu. Esate baterako, Euskaraldiak inkesta bat planteatzen du kanpainaren hasieran eta bukaeran, eta guk ere inkesta banatuko diegu EuskarAbenturako gazteei, beren inguru linguistikoa ezagutzeko, beren hizkuntza ohiturei buruz galdetuz eta abar. Informazio hori baliagarri izango zaigu taldeak osatzeko, eta EuskarAbentura aurrera doan heinean, beren hizkuntza portaerak nola edo zertan aldatzen diren ikusteko.

EuskarAbentura udakoa da, ibiltaria, gazte kopuru zehatz bat du helburu.

EuskarAbentura hiztun gazteen aktibazio dinamika da, udaldian beteko dena; marko tenporal zehatza du, beraz. Las-ter Barrian (Araba) elkartzeak gara EuskarAbentura zuzenduko dugun lagun guztiok –begirale, mediku, erizain, argazkilari...–, eta begiraleei, adibidez, formazio saioa eskainiko diegu, gazteen artean euskararen erabilera sana berma dezaten: “Asko eta gustura” da leloa. Barrian gaudela, Lautadako Euskaraldiaren arduraduna etorriko zaigu, Euskaraldia azalduz. Eta asmoa dugu EuskarAbentura abiatzen den lehen egunean ere Euskaraldia aurkeztea, eta Euskaraldian egingo den moduan, hamaikakoak –hamaika laguneko taldeak– osatzea. Horrela jokatuz, gazteei ulertarazi nahi diegu Euskaraldiaren enbaxadore eta eragile izan daitezkeela beraien herrietan. Azken finean, EuskarAbenturak eman dien esperientzia izango dute, eta bizipenetan oinarrituta eman ohi zaio egoera bakoitzari dagokion erantzuna. Uztailearen 15ean, esaterako, Agurainen gertatuko gara, eta Euskaraldiaren inguruko dinamika zehatza gauzatzea adostua dugu. ■



Argazkiko hamar gazteak dira EuskarAbentura egitasmoaren antolatzaileak. Beñat Garaio eta Ane Pedruzo elkarrizketatuak elastiko urdinekoa (hormaren kontra) eta morekoa dira.

transmititzea da. 16-17 urte adin estrategikoa da zenbait balioz jabetzeko, dela zaborraren kudeaketa egokia, genero berdintasuna, ingurumenarekiko zain-tza, turismo arduratsua eta beste.

Ondarearen ezagutza sakonduko duzue.

Ondare materiala eta immateriala. Eus-



Landare honek (*Hypericum perforatum*) izen asko du gurean, eta denek dute bere arrazoia: Milazuloa, San Joan belarra, ausiki-belarra, hosto argala, epai-belarra, erle-belarra, likurusa, bihoztxo, Santio-belarra...

Milazuloaren hiztegia



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

ARGAZKIA: ST_JOHNS_WORT

Milazuloa (*Hypericum perforatum*) deitzen dugu guk; ia mundu osoak San Joan belarra; izan ere, apiriletik irail arte loretan topa badezakegu ere, batez ere urteko egun luzeenen inguruan loratzen da. Izen asko du gurean, eta denek dute bere arrazoia, nola ez ba! Milazulo deitura hostoetatik dator; izan ere, ugari-ugari zulatuta bezala, argiak zeharkatzen dituen puntuz josia dago. Milazulo bezala milazilo, milasilo eta milaxilo ere deitzen zaio. Portugesez *milafurada* eta frantsesez *millepertuis* deitzen dute. Horixe bera adierazi nahi du izen zientifikoan daraman *perforatum* horrek.

Ausiki-belarra ere bada milazuloa. Zulo itxurako zeharrargi une horiek koska edo hozka eginda sortuak izateko itxuragatik ote?

Hostoetatik ere badatorkio beste izen bat: hosto argal. Hosto luzexkak ditu txortetik gabeak, kamutsak eta binaka enborrean aurrez aurre kokatuak.

Epai-belarra ere deitzen dugu. Izan ere, sendabelar ezaguna da, eta epaiak, hau da ebakiak eta zauriak sendatzeko erabiltzen da.

Erle-belarra ere esaten zaio. Kontuz, ordea; izan ere, izen hau ezkaia (*Thymus vulgaris*) deitzeko ere erabiltzen da. Erleak (*Apis mellifera*) gustukoa du, baina baita baratzeko erlastarrak (*Bombus hortorum*), lurreko erlastarrak (*Bombus terrestris*), *Eristalis tenax* euliak eta *Calliphora erythrocephala* haragi-euliak

ere. Itxuraz, nektarra baina batez ere polena bilatzen dute bertan.

Likurusa eta likurusna ere deitzen zaio. Lakoizketak bere 1888ko hiztegian dioenez, likur (likido likatsu) eta usna (usnatu-ikertu-arakatu-erauzi) hitzetatik letorke, landare honekin egiten den olio edo aterakin sendagaia dela eta.

Bihoztxo ere deitzen dugu, gaztelarazko *corazoncillo* izenaren itzulpena?

Santio-belarra ere deitzen da. Itxuraz, Santio -batuera euskaltzaindikoan Santiago- egunez etxeko atarietan jartzen zen. Sendabelar sonatua da, eta belar majikotzat ere jotzen da; deabrua uxatzen duela esan ohi da. Gaztelaraz, *espantadiablos* eta gaskoieraz *çaça diable* esaten diote.

Sustraitza handia duen belarra da, baita gurean ere. ■

BERPIZTU AGROKULTURA PROIEKTUA

Permakultura baratzea

Gatikan, hiriari jaten emateko



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: BERPIZTU AGROKULTURA

“Bilboko gaztea izanik, sumatzen nuen hiriko gizartea ez dagoela nekazaritzarekin konektatuta”. Horrela azaldu du Kepa Añibarro Zoritak nondik sortu zitzaion ingurumenarekiko eta lurrarekiko interesa. Ingurumen-kimikako eta Paisajismo eta Landa-Ingurumeneko ikasketak egin ondoren argi zuen nekazaritzarekin edo paisajismoarekin lotutako zerbaitetan egin nahi zuela lan. Non eta nola zen galdera. Iaz zalan-tzetatik atera eta proiektu berriari ekin zion: Berpiztu Agrokultura.

Mungiatik Gatikara

Mungia lursail batean jarriz zuen iaz proiektua martxan Añibarro. “Elikagai osasuntsuak ekoiztu eta Km0 filosofia oinarritzat hartuta tokiko produktuak hirigunera hurbiltzea zen asmoa”, dio. Mungia lur eremuak, ordea, ez zuen irisgarritasun eta urerako sarbide egokirik, eta horregatik erabaki zuen lekuz mugitzea. Aurtengo sasoiari Gatikako lursailean ekin dio Berpiztu Agrokulturak.

Bereziki permakulturan dago jantzia Añibarro. Iaz teoriatik praktikarako jantzia eman bazuten ere, hura frogatu moduko zerbitzu izan zela onartu du. Aurtengo jada proiektuak forma hartu duela dio. “Tokiko barietateak lantzen ditugu Gatikako lursailean, genetikorik eraldatu gabeak eta pestizida nahiz kimikorik erabili gabe”. Lurra aberasteko eurek egindako ongarria darabilte, termi-konpostera bidez lortutakoa esaterako. Aste gutxi barru jasoko dituzte Gatikako lur-



saileko lehen produktuak, hiriko hainbat jatetxetara eta bi banaketa puntuetara zabaltzeko.

Ekoizpenaz gain, heziketa eta aholkularitza

Berpiztu Agrokultura proiektuan, heziketara begirako ekimenak antolatzen lanean ere badabilte eta etorkizunean ildo hori jorratzea da euren asmoetako bat. Haurrekin, adineko jendearekin edota gaixotasunak dituzten pertsonen aisialdiko ekimenak eta formazio tailerrak egitea dute asmo, besteak beste. “Baratzeak badu bere alde terapeutikoa eta medizinala”, dio Añibarro.

Norbanako nahiz elkarteentzako aholkularitza lanak ere egiten dituzte Berpiztu Agrokulturan. Hiri baratzeak sortzen eta diseinatzen laguntzen dute. “Erabilpenik gabeko espazioei bizia ematen diegu”. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Ekainak 27: Ainhize Monjolose

Lurren emankortasuna ikastaroa. 9:30ean Euskal Herriko Laborantza Ganbaran. Norberak bere lur analisiak eraman ditzake. Izena emateko: (0033) 05 58 37 18 82 edo (0033) 07 82 47 15 24 telefono zenbakietan.

Ekainak 30: Urruña

Entomologiarako sarbidea. Eguneko tximeleten jarraipena. 9:00etatik 16:30era (landa bazkaria eraman). Izena emateko: cpilittoralbasque.nature@hendaye.com

Ekainak 30: Hendaia

Naturaren bideak erakusketa irekitzeko Luis Pancorboren hitzaldia. 10:30ean Abadiako Asporotsstipi Etxean.

Ekainak 30: Donostia

Zuhaitz zaharren intsektu enblematiko eta mehatxatuak ezagutzeko ikastaroa. 10:30ean Cristina Eneako sarreran.

Ekainak 30: Erronkari

11:00etan bisita gidatua Erronkari ibarra ezagutzeko. 17:30ean Natur Ludoteka. Biak Erronkariko Natur Zentroan.

Uztailak 1: Mungia

Bizkaiko Betizu arrazako abereen XII. Lehiaketa Torrebilleta parkean.

ZURE HERRIKO EKIMENEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

azoka

NOLA SALDU ZURE GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala. Bost minutuan jar dezakegu edozer salgai Interneten, euskal herritar denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko kideei zer bait eman nahi izanez gero, badugu aukera. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka • [@argiaAzoka](https://twitter.com/argiaAzoka)

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorpuzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

93
salgai

BIGARREN ESKUKO HOZKAILUA ETA GARBIKETA MAKINA

Bietako bat erosteko aukera ere badago. Biak batera erosita, merkeago.

Garbiketako Makina: ZANUSSI aquafall technology Flexy Dose 5 kg-1000 Maximun Spin.

Neurriak: 850 x 600 x 450 mm.

Gailu hau bakarka erosteko prezioa: 150 euro.

Hozkailua: INDESIT Class A+.

Neurriak: 550 x 1.400 x 550 mm.

Gailu hau bakarka erosteko prezioa: 175 euro.

250 euro



Ekainaren 28an, 10:00etan, **ARGIA Jendearentzat musutruk** jarriko ditugu:

30
gai
musutruk



Bizi Baratzea lamina 9 eta 10

Mattinek eta Antton Olariagak eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.



Bizikletak eramatekoa

Edozein kotxetan hiru txirrinda lotzen ditu.



Gerezien denboran udaberri kooperatiboa



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIA: @OLATUKOOP

Olatukoopek Saretze Eguna antolatuta berrogeita hamarren bat pertsona elkartu dira Azpeitian, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen bueltan dabilen hogeita hamar elkartetako kideak –batzuk barruan daude, beste batzuk gonbidatu egin dituzte, eta baten bat Olatukoop zer den ezagutzera gerturatu da-. Gereziak jaten ari naizela idazten dizuet oraingoan artikulua. Informazioa jaso bezain pronto hasi naiz ordenagailuko teklak astintzen, baina gerezi-denboran ezin fruta hain goxo eta polit hori jateari utzi!

Urtean behin Saretze Egun bat antolatzen du Olatukoopek, kanpora begira, urtean zehar Olatukoopera gehitu diren enpresa komunitarioak, lehenagotik kide direnak, eta Olatukoopekin harremana duten bestelako eragile eta norbakoak batzeko helburuarekin. Eta joan den ekainaren 2koa ez da kasualitatea Azpeitian egin izana. Saretze Egunak Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearentzat erreferentzia diren lekuetan egin ohi dituzte, eta “Azpeitia bada guretzat erreferente bat”, adierazi digute Olatukoopetik. “Sanagustin Kulturgunea bera –bertan egin zuten eguna– edo Azpeiti-

ko merkatu berritua eta bertan dagoen Elikagunea dira erreferentzialtasun horren adibide”, azaldu dute.

Aurten, gainera, helburu berezia zuen: “Antolaketa ereduaren bitartez gero eta gehiago garelako sentitu eta erakustea”, azpimarratu dute. Horrelako egun baten ondoren, martxan diren ildoetan bidea jarraitzea da asmoa, eta udara begira kide eta bazkide gehiago izatea espero dute. Are gehiago, laster beste motatako eragile eta sareekin harreman estrategikoak lantzeko hitzarmenak egiten hasi-ko direla aurreratu digute.

Hogeita sei dira Olatukoopen barruan dauden enpresak, eta gehienetatik gerturatu zen norbait Urola bailarara. Baina inguruko beste proiektu batzuk ere gonbidatu zituzten, Azkoitiko Bizilore hezkuntza proiektua edo Azpeitiko ElkarEkin taldea kasu. “Harremanak estutzeko” balio izan duela uste dute antolatzaileek.

Udaberri kooperatiboa irudikatuz, gerezien denboran urtero horrelako Saretze Egun bat antolatzea da asmoa. Beraz, ea datorren urteko garaiko fruituak jaten ari naizela zer albiste iristen zaidan. Gerezien zain geratzen naiz. ■

ARGIAkoa egiterakoan emandako arrazoia:

“Euskal hedabideak sustatu nahi ditudalako, informatuta egon eta euskara garatu nahi dudalako”

Estibaliz Seijas (Donostia)

AGENDA

Garaipen txikien bidez Euskal Herria burujabe mintegia

- Manu Robles Arangiz Fundazioak antolatuta, ekainaren 21ean (osteguna) eta 22an (ostirala) egingo da Gasteizko Letren fakultatean, 9:30etik 14:00etara. Alternatibean artean azalduko dira Katakarak, Alternatibean Herria, Koop57, Olatukoop, ARGIA eta REAS.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Azoka

- Ekainaren 23an, 10:30etik 14:00etara Donostiako Gros auzoan. Bertan izango da ARGIA ere.

IV. Ekonomia Solidarioaren Azoka

- Ekainaren 23an, Gasteizen, Campillon.

Ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek kudeaketa: printzipioetatik errealitatera ikastaroa

- UEUk antolatuta, ekainaren 26an (asteartea) eta 27an (asteazkena) izango da Iruñean, Ezpeleta Jauregian, 9:00etatik 17:00etara. Tartean, esperientzia hauek azalduko dira: Goiener, Laboral Kutxa, Elhuyar, Talaios, ARGIA, Lakari, Ikastolen Elkartea... Matrikulazioa zabalik dago www.ueu.eus helbidean.

Balioak eta nortasuna euskal gizartearen eraikuntzan: berrikuntza-plataforma irekiak ikastaroa

- EHUK antolatuta, uztailaren 16 eta 17an izango da Donostian, Miramar Jauregian, 9:00etatik 14:00 aldera arte. Esperientzia hauek azalduko dira: Elhuyar, ARGIA, Ikastolen Elkartea eta Elkar. Matrikulazioa zabalik dago www.uik.eus helbidean.

USOPOP

**“FESTIBAL ASKO
DIRUAREN LOGIKAN
DABILTZA, BAINA
GUK MUSIKA
MAITE DUGU”**



Datorren urtean beteko ditu hamar urte Usopop jaialdiak. Lagun artean sortu zuten, kalitatezko musika eta tratu humanoa erdigunean jarriz. Urtero saiatu dira gauza berriak probatzen, tokiekin esperimentatzen, baina tamainari eutsiz. Txikia da Usopop eta txiki nahi dutela diote Pantxika Gaicotchea Urricariet eta Joanes Garcia Basurko antolatzaileek. “Zerbait galduko litzateke bestela”. Jaialdiaren historia eta aurrerantzean dituzten erronkak erreparasatu ditugu haiekin.



Kepa Matxain
@kmatxain

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Igande arratsaldea Sarako Santa Katalina kaperan. Bi kontzertu aski desiratu –Orbel eta Maria Arnal & Marcel Bages– falta dira Usopop jaialdia amaitzeko. Bezperan, euria medio, jaialdia tokiz aldatu behar izan zuten antolatzaileek, Lizarrietako berdegunetik Sarako polikiroldegira. Hala eta guztiz ere, ohi duten trebeziak txukundu zuten aretoa, eta miresmenezko hitzak entzuten ziren bertaratutakoaren artean. Lo gutxi egin dako aurpegia dakarte batzuek, bezperan gaztetxean luze jo baitzuen gauak. Sartze-mahaian dauden Pantxika Gai-cotchea Urricarietek eta Joanes Garcia Basurkoko ere ez dute deskantsu handirik hartu izanaren tankerarik. Elkarriketa egin bitartean, asko hurreratu zaizkie sarrerak gordetzeko eskatuz. “Jorgeren izenean bat”, “lau Amaiaren izenean, mesedez”. Bostak puntuan sarrrarazi dute jendea, eta etenaldi baten ostean jarraitu dugu hizketan, hormaz bestalde Orbelen doinu pausatuak entzuten direlarik.

Orain artekoa ikusirik, aurtengoaren zer balorazio egiten duzue?

Pena izan da Lizarrietan egin ezina, Usopopen oinarria mendia delako, baina, gainontzean, aski positiboa. Gaualdi polita igaro genuen, jendea pozik zen, eta guk jendeari begira egiten dugu lan. Euskal Herriko bi aldeetako jende anitz etorri da, eguraldiarengatik agian iaz baino pixka bat gutxiago, baina kantitatea baino garrantzitsuagoa da kalitatea. Etorri da ohiko jendea, jende ona, kontzertuetakoa, eta festa giro ederra izan da. Diru pixka bat galtzen badugu ere, merezi izan du egitea. Hala ere, oraindik bi kontzertu garrantzitsu falta dira, eta, beraz, egingo dugu balorazioa datorren astean, pausatutik, ordu aski lo egin ondoren.

Txikia eta kalitatezkoa. Ezaugarri horiek izan ditu jaialdiak hastapenetatik. Zerk bultzatu zintuzten halako zerbait antolatzera?

Jaialdia, funtsean, lagun talde batek sortu zuen. Patxi Dutournier eta gu biok laguntzaile ginen EHZN. Askok ikasi genuen elkarte horretan, baina beste zerbait sortzeko gogoz geunden. Euskal Herrian ez zeuden estetika batzuk topatu genituen kanpoko jaialdi batzuetan. Oroitzen naiz, era berean, Sigur Rós-eko DVD batean ikusi genuen bira bat egin zutela Islandian zehar, hango leku

naturaletan barna. Ohartu ginen Saran bagenituela leku natural eta historiko ederrak, eta haiek berriz baloratuz, musika ohiko tokietatik atera genezakeela, eta beste zerbait eskaini, familientzat, belaunaldi desberdinentzat... Gaztetxe giroan ibilitako jendea ginen, guraso berri asko tartean, eta kasik eboluzio naturala izan zen halako zerbait antolatzera. Musikari dagokionez ere, ohiko estiloetatik kanpoko apustua egin nahi genuen. Donostian agian aukera asko izango dira, baina Saran ez. Ska, metala edo rocka entzuten zen, baina folka edo popa apenas. Erakutsi nahi genuen hor ere bazela euskal eszena aktibo bat. Euskal Herri guztian barrena horrelako ekimenak antola daitezen nahi genuke. Txikiak, baina ugari, eta giza tamainakoak, gertuko tratua baimentzen dutenak. Makrofestetara joateak nekutzen gaitu.

» “Euskal Herri guztian barrena horrelako ekimenak antola daitezen nahi genuke. Txikiak, baina ugari, eta giza tamainakoak, gertuko tratua baimentzen dutenak”

Erreferentziazko atzerriko jaialdiak aipatu dituzue. Adibide zehatzak aipatzerik bai?

Adibidez, Eskoziako uharte batean egiten den jaialdi txiki bat: Away Game. Edo Ingalaterrako Latitude festibala. End of The Road berak ere, handixea goa izan arren, xarma gordetzen du. Era horretako jaialdiei begiratzen diegu, txiki-ertainak, zainduak, koherenteak. Eta batez ere: programatzen dutenak. Gero eta jaialdi gehiago daude fotokopiak direnak, kolorerik gabeak. Guri arriskatzeari gustatzen zaigu, nahi ditugun taldeak programatzea.

Jaialdi nagusi honetaz gain, urtean zehar ere kontzertuak antolatzen dituzue, garrantzi berezia emanez tokiekin esperimentatzeari. Zergatik?

Konfort eremutik ateratzen gaitu tokiekin esperimentatzeak. Zuzenekoak areto ilunetan bizitzera ohituta gaude. Baina zuzenekoak ez dira musika hutsa, lekuek badute arima bat, eta beste zerbait sortzea ahalbidetzen dute. Adibidez, oraintxe gauden kaperan antolatu ditugu jada hiru kontzertu. Beste soinu bat du, beste historia bat –herritarrek sortu zuten 1630ean–, ez da areto bat bezain hotza. Gainera, gustatzen zaigu jendeari leku bereziak ezagutaraztea. Usopop ez da kontzertu sorta bat soilik, esperientzia osoago bat baizik. Jendearen artean harreman berezia sortu nahi dugu, kalitatea eskainiz, horretarako talde gutxiago ekarri behar baditugu ere. Lekuak esperientzia bat sortzen laguntzen du. Halako lekuetan beste gauza batzuk pasatzen dira jendearen buruetatik, beste jarrera batzuk ditugu. Argi dugu talde berberak areto arrunt batean jarriko bagenitu publikoaren erdia ere ez litza-tekeela etorriko. Jendearen erdia etortzen da esperientzia bizitzera. Taldeak ez ditu ezagutzen, eta primeran. Badaki tartean topatuko dituela gustukoak, eta une eder bat biziko duela.

Zifrek agintzen dute kulturagintzan. Azken aldian, nabari da kultur ekitaldiak kuantifikatzeko obsesio handi bat. Zuek, aldiz, aipatzen duzue Usopop handitzeak bere mamia galtzea ekarriko lukeela.

Txiki mantentzea hautu bat da, noski. EHZNren erdua, adibidez, tarteko zerbait izan da, eta arazoak sortu dizkie ekonomikoki. Jaialdi txikietan hautu azkarragoak egin ditzakegu, ez gaude diruaren menpe, nahi duguna egin dezakegu. Guretzat zifrak ez dira garrantzitsuak. Noski, kontatuko dugu zenbat garagardo eta zenbat sarrera saltzen dugun, baina batez ere harremanei ematen diegu garrantzia, ea jendeak ondo pasatzen duen... Jaialdia handituko bagenu errentagarritasunaren logikan sartuko ginatke, eta hor beti zerbait galtzen da. Festibal asko diruaren logikan dabilta, baina guk musika maite dugu.

Espezie gutxitua sentitzen zarete?

Badira antzeko filosofiadun festibal batzuk. Ez da berdina, baina hor dago Jazpana adibidez. Edo sortu berri den Kaio-

la festibala. Gaztetxe mugimenduan ere badira arrunt ekimen interesgarriak. EHZk ere badu ukitu hori. Nahi genuke are gehiago zabaltzea eredu hori. Uso-popek balio badu gazte batzuk inspiratzeko, eta haiek noizbait halako zerbait sortzeko –desberdina, beren estilokoa–, gu pozik. Gogoia duen jendea ausartu dadila.

Erraza al da urteak pasa ahala pasioari eustea?

Noski, tarteka badira estres uneak. Formula bera ez errepikatzeko, saiatzeko gara urtero proiektuari berrikuntzaren bat egiten: egun bat gehitzen, agian kentzen, lekuz aldatzen... Duda uneak ere asko izaten dira, ea hautu onak egin ditugun, ea mikroek funtzionatu duen... Eguraldiarengatik jaialdia Sarako polikiroldegira mugitzea, adibidez, erabaki gogorra izan zen. Gaur goizeko bostetan garbiketa egiterakoan asper-tuta ginen, baina gero hona etorri, eta pentsatu dugu: merezi du.

Hain jaialdi txikia izaki, nondik ateratzen dituzue sosak halako mailako taldeak ekartzeko?

Hasieran, bakoitzak gure sakelatik 200 euro jarri genituen. Lehen urtean uste baino jende gehiago etorri zen, eta nola Saran aski zuhurak garen –barrez–, diru pixka bat atxikiz eta hurrengo urterako inbertitutuz hasi ginen. Gerora Euskal Kultur Erakundeak (EKE) lagundu gaitu, pixka bat soilik. Normalean, musika taldeek inguru hauetan jotzeko aukera gutxi izaten dute, eta, hortaz, haiek esfortzu bat egiten dute, eta guk ere bai. Prezio apalago batean agian, baina beti saiatzeko gara artistei merezi dutena ordaintzen, eta ahal bezain ondo zaintzen, catering on bat prestatuz, adibidez. Harreman pertsonalek ere garrantzi handia dute: Belakok beren bosgarren kontzertua jo zuen gurean, zin egin ziguten itzuliko zirela, eta arrakasta lortu eta gerora, berritoki etorri ziren, prezio merkean. Edo Bigottekin gertatu zitzaiguna... Beasainen ginen, Jazpanan, mozkortu samar, joan ginen pixa egitera eta topatu genuen Bigotteko abeslaria. Festibal bat genuela eta ea etorri nahi zuen bota genion, prezio merke samar batean. Eta hark baietz. Managerraren zenbakia pasa zigun, handik gutxira idatziz genion eta baietz, ez zuela ahanzturik. Eta halaxe etorri zen. Behin hona



Jaialdi txikia da Usopop, ez duelako handiagoa izatea bilatzen. Masifikazioaren ordez, musikazaleak elkartzea eta giro berezia sortzea lehenesten ditu.

USOPOP

» “Normalean, musika taldeek inguru hauetan jotzeko aukera gutxi izaten dute, eta, hortaz, haiek esfortzu bat egiten dute, eta guk ere bai”

» “Orain hamargarren urteurrena dator, eta hori egingen dugu, bai ala bai. Gero, ikusiko dugu”

etorrita, berriz etorri nahi izaten dute, badakitelako zer topatuko duten: arretaz entzungo dituzten benetako musikazaleak.

Jaialdiaren erdigunean jartzen duzue euskara. Ze eragin du horrek Sara bezalako herri batean?

Euskararena, neurri batean, hautu naturala da. Gutako batzuei normala zaigu euskaraz aritzea. Baina bestalde, nahita egiten dugun zerbait ere bada. Hastapenetan, gehiago jotzen genuen itzulpene-

tara: garagardoa / bière, eta abar. Orain ez dugu itzulpenerik egiten. Alemaniarra joaten bazara, alemanez garagardoa nola eskatzen den ikasi beharko duzu. Hemen berdin. Sara herri euskalduna da, baina euskaldun pasiboa. Garai bateko jende guztiak badaki euskaraz, baina askok ez dute transmititu. Hala ere, gazte gehienek ere badakite euskaraz zer edo zer, eguneroko ohiturak aldatzea falta zaie. Saratarrek natural bizi dute euskara hutsezko afixak ikustea. Halakoa da Iparraldeko egoera. Jendeak beharbada ez du euskara asko erabiliko, baina normala zaio gauzak euskaraz ikustea. Hala da eta kito. Ez dute inposaketa bezala bizi.

Nolakoa izaten da festibalaren biharamuna? Ze erronka datozkizue orain?

Gogoetatzen ari gara jarraitu ala ez. Urtero zalantza bera izaten dugu. Orain hamargarren urteurrena dator, eta hori egingen dugu, bai ala bai. Gero, ikusiko dugu. Gustatzen zaizkigu Astra bezalako proiektuak, edo Oñatiko Eltzia bezalakoak... sozialki azkartzen dute kultur-gintza. Beharbada zerbait desberdina egiten hasiko gara noizbait, baina beti kultur arloan. Izan Usopop edo izan beste edozer, ez gaude geldirik egoteko. ■

Maria Luisa
Fernandez

Eskulturak irri dagi



Xabier Gantzarain
@gantzarain

CVA kolektiboa sortu zuen Juan Luis Morazarekin 1979an, eta 1985era arte jardun zuten lanean. Arte kontzeptuala eta kritika instituzionala lantzen zituzten, ironia baliatuz, beti ere autoritatearen kontra. *Euskal Eskultura Berria* deitu zitzaion hartan sartu izan dute arte historialariek. 1985ean Gure Artea saria irabazi zuen eskultura alorrean. Erakusketa asko egin zuen hurrengo urteetan.

Baina gero, urte askoan ezkutuan bezala egon zen Maria Luisa Fernandez Olivera (Villarejo de Orbigo, 1955eko urriaren 24a), ez zen ageri arte munduan. Irakasle aritzeak artista irentsi zuela zirudien. Baina ez zen hala. Beatriz Herraiz komisarioaren eskutik agertu zen berriro, indartsu, artearen plazara, 2015ean Bilboko Azkuna Zentroan jarritako *Je je... ilargia* erakusketarekin. Atzera begirakoa zen, aurrera egiteko behar zuena. Komisarioak egindako elkarrizketan ederki argitzen zuen kontua artistak: "Pentsamenduaren eraikitzean batek egiten duena bezain inportantea da egiten ez duena. Gelditzea aukera bikaina da, aberastu egiten zaitu. Garai bateko pasio bera daukat, eta aldi berean orduan ez neukan lasaitasuna, hobeto ulertzeko. Ilusioa daukat, gogoia daukat, eta espazio on bat, zer gehiago eska dezaket?".

Pasioa eta ilusioa ez zaizkio itzali, Madrileko Maisterravalbuena galerian dauka erakusketa oraintxe, uztailaren 18ra



MATERIA MINIMOA (III). 2011-2018

Egurra eta olioia. 185 x 12 x 12 cm

arte, izenburu honekin: 7,608,766,433 + -. Munduan bizi garen pertsona kopurua da, gutxi gorabehera. Beti izan du abilezia berezia izenburuak jartzeko orduan, jostaria da, umorea baliatzen du, esaera zaharrak, ikuslea bere munduan

sartzen asmatzen du. Eta bere mundua eskultura da. Materia, koloreak, formak, mundua zertaz egina den galdetzen dutenak.

Eta gizakia, dena hondatzen ari den espezie hori, zer den. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Heteroklitoaren
separata

Igor Estankona


Orrialdeotan esan genuen azken iruzkinean ere: Susakoen Munduko Poesia Kaieren bildumara iritsi behar zuen halako batean Ezra Poundek (Hailey, Idaho, 1885–Venezia, 1972). Luigi Anselmik prestatu digun bigarren uste-kabekoa bakan horietakoa da ordea: *Cathay*, 1915an Poundek argitaratutako itzulpen lana, Txinako poemen antologia japoniarrarena. Ernest Fenollosa orientalistaren ohar batzuetatik abiatu zen. Fenollosak sakon batu, aztertu eta itzuli zituen ideograma eta poema txinatarak, eta bere koaderno osagabeak emazteak eroan zizkion Poundi, lana buka zezan. Txinera jakin barik, erdi asmatuz erdi itzuliz itzuli ezin dena, Poundek irauli egin zuen itzulpengintza, eta are poetika bera. Lakonismo narratiboarekin hunkitzen gaitu ordutik, gu, erretorikan jaioagoak garenok: “Alor, alor deboilatuak/ Eta haien gainean gerlako umerik ez/ Ez gizonik erasoka edo defentsan./ Ai, jakiterik bazenu Iparraldeko Ateko atsekabearen berri!/ Ribokuren izena jadanik ahantzi-rik,/ Eta gu, zaindariok, tigrean bazka”.

Cathay Ezra Pounden gainontzeko poema guztien oinarrian dago. Gauzak esateko modu zuzen, ederra aurkitu zuen; kon-turatu barik lirismoa egitea: “Fenix hegaztiak jolasean dabilta beren terrazan./ Fenixek alde egin dute, ibaia bere bideari lotzen da bakarrik./ Liliek eta bel-larrak/ bide iluna estaltzen dute;/ bertan dago Go-tarren etxe dinastikoa”.


Cathay

EZRA POUND

Susa, 2018



Errimarekin eta kiribilarekin barik, zuzena-go doa poeta metaforarik gabe inkontzientea-ren forma klasikoetara. Kontzepzio bat sortu zuen askotan sentimendu arraro bihurtzen dena, irudi bailuke maiz zerbait esateko modu *bakarra* kausitu duela, ez dagoela modu ho-berik zer edo zer hori esateko, Rihakuk mila urteko poesia txinatarren dekantaziotik sortua ekartzen duenean legez: “Eta larraz-ken gardenean zehar so egiten diot ilargiari”. Negargura ematen du, eta ez dakizu zehatz zergatik. Xamurtasunagatik. Perfekzioaga-tik. Usainagatik. Poema sinplearen zailtasu-naz gozatzeko liburu fin-fin bat da finean *Cathay*. Metafora poema bilduma osoa da, liburu bera. Ekialdea nola loratu zen, eta betiko finkatu, mendealdeko victoriar gustuaren erdian. ■



Ezra Pound poeta estatubatuarra
(Hailey, Idaho, 1885 - Venezia, 1972)

» DISKOA

Sekulako energia erauntsia



Joxi Ubeda Goikoetxea

Disko ederra egin du Voltaia taldeak. Punk stoner rock zurrumbilo bat da, sekulako energia erauntsia. Erritmoak biziak eta jostalariak dira, kanta hastearekin batera eramaten gaituzte, eta soinua oso indartsua da, bateriaren eta baxuaren erritmo oinarri sendoaren gainean gitarraren riffekin eta marrazkien ederki osatua.

Halaber, aipagarriak dira ahotsak eta harmoniak, melodia politak sortu dituzte, eta gainerako ñabardurak, xehetasunak eta mol-daketak arreta handiz gauzatu dituzte. Oso ekoizpen lan ona egin dute, azken batean.

Hasieratik rock gogorra jo izan dute, 70eko hamarkadako hard rockaren eraginak nabari zaizkie, lan honetan ere bai, baina beren doinua ez da lehen bezain gogorra. Bilakaera bat izan dute eta orain melodiak nabarmenago sumatzen dira.

Harremanak, desioak, izatea, bizitzaren zentzua eta arazo sozialei buruz mintzo dira kantetan, gordin: "Infernu honetan zerua ez da ikusten" (*Zure bila*), "Deabruaren hirian biztanle bihurtu gara" (*Dekadentzi ritmiko*), "Ez dakigu non ezkutatu, bizitzeko gogoz" (*Bizi gogoak*), "Aurrera ezin eginik zentzuak ditugu minduta, jarraitu ezinik" (*Odisea*), "Bizitza hautsi zitzaigun, mila zatitan apurtu, berriz erortzen banaiz heldu nazazu" (*Erortzen*).

Voltaia taldea Zumaiakoa da, 2014an sortu zen, eta lau urtean hiru disko kaleratu ditu. Oso ibilbide emankorra egiten ari dira, diskoek gain jendaurreko emanaldi ugari egin baitituzte denbora honetan.

Erortzen

VOLTAIA

Autoekoizpena, 2018




Unai Eizagirre (ahotsa eta baxua), Ion Brakamonte (gitarra) eta Pablo Sanchez (bateria) dira orain taldeko partaideak, Jon Duran bateria jotzaileak 2017ko otsailean taldea utzi eta Pablo Sanchez hasi baitzen taldean jotzen.

Disko berria aurtengo otsailean kaleratu eta han eta hemen jotzen ari dira. Aurten emanaldi ugari egin dituzte, eta oraindik egingo dituztenak. Besteak beste, uztailearen 6an Oviedon (Asturias), uztailearen 7an Lugon (Galizian), uztailearen 29an Donostian, irailaren 1ean Irunen, irailaren 7an Legorretan eta urriaren 6an Orion. ■

Voltaia taldea, jendaurreko emanaldi batean.

BERIS





Gasteiz orainaldian

ORAINALDIAN DOKUMENTALA

Egileak: Iñaki Landa, Mikel Buruaga eta Gindi Auzmendi.

Noiz: Maiatzaren 30ean. Non: Gasteizen, Florida zinematan.



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu

Asteazken bat, arratsaldeko 20:30ak, eta zinemara. Halakoxe planak sortzen dira, tarteka, Gasteizen. Oraingoan, aitzakia dokumental baten estreinaldia zen, baina izan zitekeen beste edozer ere: antzerki obra, adibidez; edo kontzertua, edo erakusketa, edo performancea, edo... Eta noski, esango duzue, "hori gurean ere badago". Eta arrazoi izango duzue: ez dut ezer berririk esan. Baina badut halakoak esateko arrazoi txiki bat; izan ere, dokumentalean, beste alor horiek guztiak aipatzen dira: antzerkia, zinema, musika, pintura, argazkia... Gasteizen lanean ari diren hainbat laguni buruzko dokumentala baita *Orainaldian*: izan antolatzaile, eragile edo artista.

Zehazki, hamabi istorioren inguruan egindako elkarrizketak dira dokumentalaren mamia: zinema kontuak, naturan egindako performanceak, liburgintza, marrazkilaritza, ipuin kontaketa, kantugintza... denetarik aipatzen dute hamalau elkarrizketatuek. Egileek –Iñaki

ki Landa, Mikel Buruaga eta Gindi Auzmendi– euren lanari buruz, horretarako topatu dituzten erraztasun eta zailtasunei buruz, instituzioengandik jasotako traba eta laguntzei buruz eta, noski, Gasteizi buruz galdetu zieten. Eta "noski" diot, hori baita dokumentalaren hari gidaria: Gasteizko egungo sorkuntza.

Hari nagusia hori izanda ere, ekin-tzailletza eta autogestioak egiten dute sortzaile guztien artean hari lana.

Ongi egina dago dokumentala, dotorea da. Baina inpresioa daukat, hartzailea nongoa den, Arabako hiriburuaren zein ezagutza duen, ondorioa ezberdina izango dela. Hortaz, utziko didazue batzuentzako eta besteentzako ondorioak idazten.

Gasteiztik Buesa Arena, Mendizorroztza, Alaves, Zeledon, Ama Zuriaren plaza, eta Kutxi kalea ezagutzen duzenontzat: Ziurrenara, zuen bizilekua edozein dela ere, eta baldin eta kultura zaleak bazarete, inbidia sentituko duzue hau ikusita. Hamaika kultura adierazpide, askotari-

ko estilotakoak, gustu guztientzakoak topa daitezkeela konturatuko zarete. Ohiko topikoez gain, bizi-bizirik dagoen hiri bateko biztanleek eskainitako aukeren lagin txiki bat jasoko duzue, eta dudarik gabe, bertaratzeko gogoia egin.

Gasteiztarrantzat eta Aiaraldekoak ez diren Arabarrentzat, Euskal Filologia edo IVEF ikasten 4 urte bertan eman eta zuen herrietara penaz bueltatu zaretenontzat, edota bertan lan egin eta tartean-tartean bertan gelditzeko aitzakia bila ibiltzen zaretenontzat: Oker zaude te dokumentalak ezer berririk erakutsiko ez dizuela pentsatzen baduzue. Postura egiten dizuet ezagutzen ez duzen istorio bat baino gehiago topatuko duzuela. Eta okerrera izango da, sortzaile hori zuen taberna berera joaten dela konturatuko zaretela.

Ziur, egun hauetakoren batean iragarriko dizuetela emanaldiren bat zuen inguruan, webgune edota telebistaren batean. Batzuek eta besteek ez gero galdu. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

 1 JAVIER MEDIAVILLA EZQUIBELA LEMAZAIN BABESTU, GORDE MEXIKOKO HERRITAR MUSIKA TRESNA		PIXKAKA NOREN ATZIZKIA BELDURTIAK, IKARATIAK DUDARIK GABE EGUR TENTEL, MOTEL		 2 UNAI FDZ. DE BETOÑO	
1 ZENITAREN AURKAKO PUNTUA ESERLEKU LUZEAK 500 ERROMATAR ZENBAKIZ			GARRAIOBIDE 3	UGARI, NARORO BALIORIK GABEA	
URANIOA MUNIZIPAL	2 BARAZKI HOSTOTSUA	ARTISTAREN EMAITZA OTALOREA	ITOGIN HESTEBETE MOTA		
HERRI NAFARRA SUGE MOTA		ZERGA AIRE ZABALEAN LO EGITEA		AFRIKAKO IBAIA IRRIBERA, JOSTARIA	UNITED KINGDOM SUFREA
	ANFIBIO SALTARI ERREKA	AKATS (AL-DERANTZIZ) EUSKAL IDAZLEEN AL-KARTASUNA	TRANKIL, BARE ERREPIKA-TUZ, IKARA		
 3 ARIEL BARRETTINO		4 IKAS ETA ARI	ASIAKO MENDE-BALDEKO ESTATUA	 4 GOIENA.NET	

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

				8	9		4	3
4			5	7	1			8
		9					5	
		8			3		1	
6								2
	5		9			8		
	2					3		
1			3	2	4			9
9	4		7	6				

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Aurpegi, begitarte.
2. Kontsonante ez dena.
3. Geldirik, lasai.
4. Burmuin.
5. Argitasunik gabea.

Ebazpenak

5x5:
1. Abegi, 2. Bokai, 3. Eku, 4. Garun, 5. Iluna.

N	V	A	R	I	V	K	I		
O	V	M	V	R	V				
A	R	A	V	I	B	A	I		
I	S	A	L	V	I	G	E	L	B
K			A	K	A	B	A	V	Z
O	I	N		A	S	A	T		V
U	R	X	V	T	I	N	O	I	O
V	A	N		E	L	R	V		N
N			T	K	A	V		B	A
				A	R				
				U					
				Z					

Katrin Ginea. Geltoki bateko gidari



La Roncalesa, La Burundesa edo beste hainbat konpainiaren bilgune zen Iruñeko autobus geltoki zaharra ekonomia solidarioaren erdigune da ekainaren 9az geroztik. Katrin Ginea ari da proiektuaren koordinatzaile lanetan. Leihatila zaharrean txartela hartu eta hamar laguneko kooperatibak mundu berriranzko bidaiari ekin berri dio.

“Pertsona helburu duena da ekonomia solidarioa”



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Elkartasun ekoizpena

“Arbizun jaio nintzen duela 38 urte, eta han bizi naiz. Argazkilaritza eta erreializazioa ikasi nituen eta ekoizpenaren munduan mugitu naiz. Iruñean Nasa produktoran, *Baztan* filmean ekoizpenean, Arena produktoran... Lan hauek herriko taberna baten kudeaketarekin batera egin nituen. Kultur zinegotzia ere izan nintzen lau urtez, eta aldaketa beharrez duela bi urte Bilbora joan nintzen bizitzera. Kafe Antzokian eta Taom produktoran aritu nintzen. Geltokin hastearekin Nafarroara itzuli naiz”.

Zer egingo du Geltokik?

Ekonomia solidarioa, ekonomia burujabetza eta kultura alternatiboa bultzatuko ditugu. Hiru jarduera molde horien bozgorailu izan nahi dugu.

Juridikoki nola osatua dago?

Geltoki Iruñeko Udalarena da eta Asociación Geltoki Iruña elkarteari (REAS Nafarroa, Emausko Trapuketariak, CEPAEN, EHNE eta Alimentos Artesanos) esleitu dio espazioa alokairu truke. Honek gure kooperatiba sortu berriari eskaini dio kudeaketa.

Zein inbertsio eskatu dizue?

Fiare banku etikoari 80.000 euro eskatu eta abiatu gara. Beste 16.000 euro behar ditugu eta crowdfunding kanpaina jarri genuen duela egun batzuk, ekainaren 30a arte.

Zer da ekonomia solidarioa?

Ekonomia kapitalistan pertsona etekina lortzeko tresna besterik ez da. Ekonomia solidarioa, pertsona helburu jarritzen duen ekonomia da.

Eta kontsumo arduratsua?

Giltzarri da, bestela egin daitezke hamai-

ka alternatiba, baina horiei herritarrek gure patrikatik erantzuten ez badiegu, edo produktuak nondik eta nola datozen kontuan hartzen ez badugu, jai dago.

Lehiara datorren espazio berri bat da?

Ez, ez gatoz asmo horrekin, beste hainbat ekimen eta jarduerarekin osagarriak gara eta elkar elikatzea gatoz. Esaterako, eskertuak gaude Katakrakek eskaini digun laguntzarekin.

Zuek ere mundua aldatzekotan ari zarete?

Geure neurrian bai, azkenean guztiek pixkatxo bat egiten badugu aldaketa handiak egin daitezke. Denbora laburrean ezin da aldaketa handirik lortu, baina pixkanaka bai.

Ez dakit ondo goazen: 83 pertsonak munduko biztanleen erdiak adina aberastasun biltzen du jada.

Egia eta tristea da. Klase ertainak gero eta urriagoak dira, antza. Gu txikiak laguntzeko jaio gara, esaterako landa eremuak, eta horretan arituko gara. Herri-tarrak landa eremuak uzten ari dira, eta haiek han mantentzen laguntzea funtsezkoa da.



*"Hemen ez da hierarkiarik
eta modu asanblearioan egiten dugu lan,
gutiz horizontalean".*

Elikagaien esparruan gertukoarekin eta ekologikoarekin egingo duzue lan. Mundu horiek gorantz doazela dirudi.

Bai, bestela ez genuen Geltoki abiaraziko. Baloreen jarri nahi dugu bertakoa, eta baita ekologikoa, sasoikoa eta merkataritza justua ere. Kate guztia errespeta dadila nahi dugu: lan baldintza duinak, produktuaren kalitatea, natura errespetatuz...

Geltokin zer dira lan baldintza duinak?

Gutxieneko bat kobratzea eta ordu estrarik ez egotea, adibidez. Hemen ez da hierarkiarik eta modu asanblearioan egiten dugu lan, gutiz horizontalean. Denok dugu ahotsa eta botoa, eta denok egingo dugu lan ordu kopuru bera. Orain hasiera da eta aparteko ordu asko egiten ari gara, baina dirutan kobratu beharrean ordu horiekin poltsa bat osatzen ari gara gero oporrak hartzeko.

Etekinak...

...lanpostu gehiago sortzeko izango dira, proiektua sostengatzeko eta kultur jarduerak antolatzeko.

Eta gainera "gizarte eraldaketarako tresna gisa geure egingo dugu artea" diozue. Zer esan nahi duzue?

Gaur egun artista txiki asko ezin dira gune handietara iritsi –ondoan dugin Baluarte honetara, esaterako–, gainera akaso ez dute nahi, eta hemen txiki horiek guztiek tokia izango dute. Geltokin betiko gauzak egingo ditugu, baina baita bestelakoak ere.

Hasierak nahiko oihartzun izan du.

Bai, hala da. Iruñean halako gune bat behar zela entzun da batez ere, eta jakina, autobus geltoki zaharra oso ederra da halako jarduerara baterako. Zenbat jende datorren hona bere geltoki garaiko oroimenekin! Jendeak maite du toki hau.

Aipatzen dituzun guztiez gain, zuen jardueraren azterna ekologikoa ere neurtu behar duzue.

Guk antolatutako jarduerak guztiek izan-

go duten CO2 isurketak neurtu nahi ditugu. Lehenbizi gure kontsumoa neurtu behar da –gurea eta gurera datozenak, hizlariak, ikus-entzuleak...–; bigarrenik energia berriztagarriak lantzen hasi; eta hirugarrenik landareak landu edo bestelakoak, suntsitutakoa berreraiki ere egin behar delako. Jakina, azterna gutxitzen joatea da kontua.

Geltoki deitzen da, ez Estación.

Hizkuntza politika oso garrantzitsua da guretzat. Euskara bertako hizkuntza da eta hemengo komunikazio guztia elebiduna izango da. Langileen artean bada euskalduna ez den jendea, baina gutxieneko batzuk eskatu ditugu, eta taldea euskalduntzen jarraituko dugu. Kultur jarduerak asko ere euskaraz izango dira.

Hau zer da, oasi bat Iruñeko Alde Zaharra eta Bigarren Zabalgunearen artean?

Ez, Iruñean badira halako errealitate asko, baina honek badu bilgune izateko bokazioa eta gainera asko entzun da. Ez dugu oasi izan nahi, hemendik Iruñea eta Nafarroa osora zabaltzeko nahi dugu. ■



“Small pintxos, great ostia” kanpaina, turistak kontzientziazteko

Bilbon aurkeztu dute kanpaina, *The World's 50 Best Restaurants* ekitaldian. Bezperan sukaldari gonbidatuek afaldu zuten Atxondoko Etxebarri erretegian eta, noski, barraskilo-zukuarekin erregositako pinaburuz betetako abakondo uzkiari laguntzeko txakolina edan behar, eta ondoren txupito eta klonklonklon batzuk, ba ideiarik onena nork botako lehiari hasi eta hala amaitu zuela kontuak: “Small pintxos, great ostia” kanpaina, Akira Mamigutxi txef japoniarrak proposatua. “Gogoan dut Donostiako taberna batean azeituna bat eskatu nuela behin, eta kale kantoian ukelelea jotzen hasi behar izan nuela sos batzuk irabazteko. 50 euro ko-bratu zizkidaten! Lagun gipuzkoarrei galdetu nien ea azeituna horrek torafugu japoniar arrain pozoitsu bezain preziazatua ote zuen barruan, baina ez, gauza



San Sebastian Regioneko bus geltokietan agertu dira lehen afitxak.

marroixka hori zen antxoa ziztrin baten hegala pelbikoa. Ostia latza jaso nuen.

SAREAN ARRANTZATUA

Jatorriak axola al du?



Ez dago eskubiderik!



Neymarren orrazkera Aginagako angulak promozionatzeko kanpaina bat da

Aginagako angulagileek baieztatu dute-nez, Brasilgo futbol selekzioaren Munduko Txapelketako lehen partiduan Neymarrek buruan zeraman beraien produktu berria: angulak curryarekin. Uda honetan merkaturatuko dute Euskal Herriko eta atzerriko gastroteka guztietan dastatu ahaliko den plater berria eta Neymarrek erakutsi dio munduari eskusiban. “Mota honetako promozioak

garestiak izaten dira, baina Shangaikoei saltzen dizkiegun angulen etekinekin bageneukan marjen pixka bat... grabatzen ari zara? Em... esan nahi nuen, kreditu bat eskatuz lortu dugula”. Gastronomian adituek uste dute turistaren artean arrakasta ziurtatua daukala produktu berriak: “Pasta nazkagarri batekin egingako gula horiek funtzionatu bazuten, nola ez dute honekin kiloka salduko?”.





Osteguna, **AZOKA** Eguna ARGIA

Ostegun goizero jarriko ditugu eskura
ARGIA Jendearentzat **musutruk** diren eskaintzak. Bixi ibili!
Astero Bizi Baratzeako bi lamina eta askoz gehiago: otorduak, asteburu-pasak...





BLACK IS BELTZA

ERAKUSKETA

2018-06-15//2018-09-30

San Telmo Museoa

Laborategia | Sarrera dohainik

Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia / San Sebastián. www.santelmomuseoa.eus

Antolatzailea:

STM
San Telmo Museoa

 **DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

 **donostia
kultura**

Proiektua:

 **TAIKA**
REALIZADO BY M.S.

Az
Azkuna Zentroa
Ahondagailuz